

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

252. Zenb.

1995.eko urria
335 pta./15 libera
(B.E.Z. barne)


GUGGENHEIM, ITZELEZKO HEZURDURA

Bilbo Zaharra Euskaltegiko ipuinak

ENEKO GARMENDIA



ARGAZKIA: X. ELGEZABAL



2

Jende asko dago Enekoren antzekoa, milaka. Enekok kirola maite du, **saskibaloia**. Txikitan, orain 20 urte ditu, saskibaloian jokatzen zuen. Baina txikiegia da segitzeko. Hala ere, ez du kirol hori **laga**. Alde batetik, bere herriko saskibaloi-taldean, jubenil mailan, ez **helduekin**, teknikaria da. Berak eramaten ditu jokalarien estadistikak: zenbat aldiz saskiratu duten baloia, zenbat aldiz lapurtu dieten **aurkariak** eta abar. Hiru urte egin ditu horretan.

Eta orain hiru urte hasi zen beste **zaletasun** batekin. Taugres saskibaloi-taldearen **jarraitzailea** da, jarraitzaile **sutsua**, eta prentsa idatzian ateratako guztia biltzen saiatzen da. Lehen, egunero **ahalegintzen** zen horretan. Bi liburu baditu aurreko bi denboraldiak, bat oso mardula, 300 orritakoa. Gehienak fotokopiak dira. Hasieran 10 pezeta kobratzen zioten herriko kultur etxean fotokopia bakoitza. Baina orain ezagutzen dute mutila, eta **doan** egiten ditu. Argazki batzuk ere baditu entrenatzaile eta jokalariekin. Baina berari ilusioa zerak eman zion: Green eta Perasovic jokalariek bere **bilduma** ikusteak. Baina Enekok gehien maite duena sarrera batzuk dira, Lausannako finalekoak. Pena Taugresen final hura **galdu izana**!

Orain ostiralero joaten da kultur etxera fotokopiak ateratzera. Aurten Taugres ondo arituko dela dio. **Sarritan** joango da Mendizorrozara Taugres txalotzera.

Jende asko dago Enekoren antzekoa. Horregatik aukeratu dugu sail honetarako.

SASKIBALOI.- Baloncesto.

LAGA.- Utzi, Dejar.

HELDU.- Adulto/a.

AURKARI.- Etsaia, Adversario.

ZALETASUN.- Afizioa.

JARRAITZAILE.- Segitzailea.

Seguidor/a.

SUTSU.- Gartsua, suharra.

Ferviente.

AHALEGINDU.- Saiatu. Esforzarse.

DOAN.- Dohainik, debalde.

BILDUMA.- Colección.

GALDU IZANA.- El haber perdido.

SARRITAN.- Maiz, askotan.

Frecuentemente.

IKUSMIRAN ERREPORTAIA ELKARRIZKETA

ERREPORTAIA LABURRAK 2 HAU MUNDUA 2 BAI, ESAN

ELKARRIZKETA

PORRUSALDA 2 LITERATURA DISKOAK 3 LIBURUAK 3 ERREPORTAIA IDAZLAN-LEHIAKETA

EZETZ ASMATU 3

ABESTIA ERREPORTAIA IPUINA JOLASEAN ZINEA KOMIKIA SOLUZIOAK HOROSKOPOA

Eneko Garmendia 2	2
Guggenheim, itzelezko hezurdura 3	4,5
Francisco Egea: «Lanorduak eta soldata jaitziko begenitu, denontzako lana» 3	6,7,8,9
Ezinduak ere gai 3	10,11
.....	12
.....	13
Olentzerok kafe-antzoki euskalduna utziko du Bilbon 2	14,15
Iñaki Gastesi: «Egun, beste ezerk baino gehiago ekologiak kezkatzen nau» (Pako Sodupe) 3	16,17
.....	18
Durango Azoka	19,20,21,22
.....	23
.....	24
Orain 40 urte hil zen James Dean 3	25,26,27
Kelly-ri 2	
Nire lagunari 3	28,29
.....	30,31
Limosnatxo bat (Pedro M.ª Otano)	32
Baionako portua (Xipri Arbelbide) 3	33,34,35
Zaintzailearenak (Patxi Zubizarreta) 3	36,37
.....	38,39
Hasiera txarra, filme txarra (Begoña del Teso) 3	40,41
Braulio Babolio (Luis Duran) 2	42,43,44,45
.....	46
.....	47

HABE MAILAKA IRAKURRI

Irakurle hori:

Dagoeneko badakizu aldizkari honetako erreportaiak eta zenbaki bat dutela artikuluen zailtasuna adierazteko. Beraz, eta HABEren programazioa oinarri, zailtasun-mailak 1 2 3 4 zenbakiak ipiniz adierazten jarraituko dugu. Dena den, ez nahastu programazioaren urratsekin.



© Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorra: HABE.
Tel. (943) 41 26 00
Faxa: (943) 41 26 01
ERREDAKZIOA:
Iñaki Ugalde
F.A.E.
Ion Imanol Iturrioz
MARRAZKIGILEA:
Enrike Larrarte
AZALEKO ARGAZKIA:
Xabier Elgezabal

IRARKOLA:
Artes Gráficas
Rontegui S.A.L.
LEGEZKO GORDAILUA:
BI-2251/81
ISSN: 0212-6788

GUGGENHEIM, ITZELEZKO HEZURDURA

3 Itzel-itzela. Guggenheim-en **hezurdura** ikusita, horixe da burura datorren lehendabiziko hitza. Mazarredo kaletik begiratuta —hantxe daude Guggenheim-en bulegoak—, bere handitasun guztia erakusten du **eraikuntza erraldoiak**.


Horregatik egin genuen berba Carlos Iturriaga arkitektoarekin, museoa «egiten» ari diren arkitektoetako batekin. Guk re arkitektura aldetik helduko diogu gaiari.

Bilboko Guggenheimek 24.000 metro karratu ditu, horietatik 11.000 erakusketak egiteko. Gelditzen den lekuan jatetxea, liburutegia, atrioa, denda, artelanak zaintzeko **guneak, biltegiak**... egongo dira.

ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL



Era batera edo bestera, 1992an hasita, ia 400 langile ari dira lanean urtero. Datorren urtean, abenduan, bukatu nahi dute eraikuntza, eta 1997ko ekainean inauguratu: «**Irudimen** handiko gizona da Gehry, eta hiru urteotan beharrean aritu da, eta, berarengatik balitz, formak diseinatzen arituko litzateke etengabe, hobetzen. Baina guk epe batzuk bete behar ditugu, eta diru-kopuru bat dugu» esan digu Iturriaga jaunak.



Lehiaketa bat egin zen eta azkenean hiru arkitektoen lanen artean aukeratu. Arata Izosaki eta Coop. Himmelblau kanpoan geratu ziren, eta Frank O. Gehry ateratu zen **garaile**. Eta zergatik aukeratu zuten Frank O. Gehryren lana?: «**Orubeari** hobekien huraxe **egokitzen** zitzaiolako —erantzun digu Carlos Iturriagak. **Irrioa** daukagu ondoan, La Salveko zubia, ensantxea... Eta Gehryk oso kontuan hartu ditu aldagai horiek».

HEZURDURA.- Esqueleto, armazón.

ITZEL-ITZELA.- Oso handia, ikaragarria.

ERAIKUNTZA.- Eraik(i)+kuntza. Construcción.

ERRALDOI.- Enorme, gigante.

GUNE.- Tokia, lekua. Espacio.

BILTEGI.- Bil(du)+tegi. Depósito. Era berean: liburutegi, harategi, hazitegi...

IRUDIMEN.- Irudi(tu)+men.

Facultad de la imaginación. Era berean: ikusmen, idazmen, entzumen...

GARAILE.- Garai(tu)+le. Irabazlea. Ganador/a. Era berean: erosle, ikusle, irakasle...

ORUBE.- Solar.

EGOKITU.- Moldatu. Adaptar.

IRRIO.- Ría.



Frank O. Gehryren arkitekturaz hitz egiteko eskatu diogu Carlos Iturriagari, eta zera esan digu, oso zaila dela **sailkatzen**, etiketa bat jartzen, oso berea duela arkitektura-mota hori, kurba **korapilotsu** askorekin, metalez estalita gehienetan...: «Ez dut esango XXI. mendeko arkitektura dela Gehryrena, baina bai XX. mendearen bukaerakoa. Kanpotik ikusgarria da, eta barrutik ere bai. Zabalgunek itzelak ditu, galeria guztiak biltzen diren guneak 300 metro karratu ditu, baina gora aldera 60 metro da, kristalezko dorre handi batzuekin, beste batzuk harizkoak, goitik eta aldeetatik argi asko sartzen da... Izugarria da. Argia asko zaintzen ari da, bai **berezkoa**, bai artifiziaia».

Eskuinean La Salveko zubia. Azpitik pasatzen den galerian, **aldi bateko** erakusketak izango dira. Galeria hori —eta hau idazten ari dena ez da bilbotarra— 150 metro da luzean, 15 metro **garai** lekurik baxuenean, eta zabalera, lekurik zabalenean, 40 metrokoa du; **hedadura**, berriz, ia 6.000 metro karratukoa.




New Yorkeko Guggenheim ikustera jende-**andana** joaten da, eta ia erdia eraikuntza bera ikustera. Baina, noski, zorionez edo zoritxarrez, Bilbo ez da New York. Carlos Iturriagak esan digunez, eraikuntza amerikarra Bilbokoaren atrioan sartzen omen da.



Titanioa erabiltzen ari dira Guggenheimen. «Ez da eraikuntzan sekula erabili, nahikoa garesti delako, baina

beste metalak jartzen diren leku berean jarri da» azaldu digu Iturriagak.



Azken maketa, laugarrena alegia. Guggenheim Bilbon altxatzen hasiz geroztik, aldaketa batzuk egin ditu Frank O. Gehryk.

SAILKATU.- Clasificar.
KORAPILOTSU.- Entrelazado.
BEREZKO.- Natural.
ALDI BATEKO.- Denbora jakin bateko. Temporal, por tiempo determinado
GARAI.- Alto.

HEDADURA.- Zabalgunea. Superficie.
ANDANA.- Samalda, talde edo sail handia.

FRANCISCO EGEA: «Lanorduak eta soldata %19 jaitsiko bagenitu, denontzako lana»


3 Francisco Egea Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailburuordea da. Sail horrek eratu ditu urriko nazioarteko Lan-**banaketari** buruzko Nazioarteko **Ihardunaldiak**. Langabezia arazo larria da gurean. Francisco Egearen ustez, ekonomiaren **hazkundeak** soilik ezin du langabezi tasa jaitsi. Europako beste herrialde batzuetan lanaren banaketa eta lanorduak gutxitzeaz eztabaida **sutsua** piztu da azken urteotan. Eztabaida hori iritsia da guregana ere iadanik.

HABE. - Lanaren banaketa aipatzeak itxaropena sortzen du lanik ez dutenen artean. Langileak, **ugazabak** eta administrazioa, ordea, ez daude hain lasai. Lana banatzeak

nolako **eragina** izango du hiru talde horietan? Zer galtzen dute eta zer irabazten?

FRANCISCO EGEA. - Guk gai hau kaleratuz eztabaida piztu

nahi dugu, besterik ez. Administrazioak ez ditu ugazabak eta langileak horretara **behartu** nahi. Baina gaur egun dagoen langabezia izugarriarekin horrelako irtenbideak aztertzea



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

BANAKETA. - Bana(tu)+keta. Reparto. Era berean: idazketa, zozketa, garbiketa.
IHARDUNALDIAK. - Jornadas.
HAZKUNDE. - Crecimiento.
SUTSU. - Suharra, gartsua. Caliente.
UGAZABA. - Nagusia. Patrón.

ERAGIN. - Influencia.


BEHARTU. - Derrigortu. Obligar.

eta eztabaidatzea komeni zela ikusi genuen sail honetan.

Euskal enpresek beren **lehiakide** europarrek baino ordu gutxiagoz erabiltzen dituzte makinak eta lantokiak. Eta horrek kostuak handitu egiten ditu. Bestalde, teknologia berriak motelago sartzen dira. Lehengo teknologia amortizatu gabe dagoen bitartean, ez da teknologia berriagorik erosten. Eta horrek **atzerapena** dakar. Guk enpresei zera esan nahi diegu: nahiz eta langileek lanean ordu gutxiago eman, makinek ordu gehiagotan ari behar dutela lanean. Makinek ordu gehiago lan egiten badute, **ekoizpena** handiagoa izango da. Eta hona enpresarien lehenengo galdera: non salduko ditut nik soberakin horiek? Atzerrian. Poliki-poliki haziko da kanpoko salmenta, baina egin egin daiteke. Europako Batasunean, adibidez, euskal enpresek duten merkatu-zatia oso txikia da, %2-%0'2 bitartekoa. Gehiago saltzeko gauza gara. Baina horretarako laguntza batzuk behar dira. Ingelesa **menderatzen** duten langile gehiago behar dira. Enplegatuen %4a bakarrik mintzatzen da **txukun samar** ingelesez. Horretan ere eragin beharko da kanpoan gehiago saldu nahi badugu. Ondorioa? Produktuaren kostua jaitsi egiten dela. Eta hori ondo neurtuta dago Alemanian. Izan ere, Hewlett-Packard-ek, Sandoz-ek eta beste zenbait enpresak lan-denbora murriztu dutenean, **beren kabuz** hartu dute erabakia. Eta Alemaniara jo gabe, Michelin-ek berak bostgarren txandarekin berrehundik gora lanpostu sortu ditu Gasteizen.

H.- Lantegi eta makinak alde batera utzita, langileek ez al dute orduko lan gehiago egiten gutxiago nekatzen direlako?

F.E.- Badaude beste ondorio batzuk ere. Produktibitate handiagoa dakar honek, eta **lanuzte** gutxiago. Eta kontuan eduki euskal industrian lanorduen %6 baino gehiago galtzen dela horretan. Eta hori tasa handia da.



«Frantziako eredia geureganatu egin dugu. Gu ez gabiltza ametsean»

Bi puntu jaitea lortuko balitz, diru asko aurreratuko lukete enpresek.

Familiaren errenta hazi

H.- Eta langileari zertan eragiten dio lana horrela **eratzeak**?

F.E.- Hasteko, soldata ez da garrantzitsuena. Ez zaio bakoitzaren soldatari erreparatu behar, familia osoak jasotzen duenari baizik. Gaur egun familia da zalantzarik gabe **euskarririk** handiena, aseguru soziala, pentsioak eta ahaztu gabe. Familiako langile bakar bat **gai da** bere **sendiko** beste lauri eusteko. Erabakiorrena familia osoaren errenta da. Eta soldatak ez igotzeak etxeko beste batek lanpostua lortzea badakar,

familiaren errenta hazi egingo da. Hori alderdi ekonomikotik ikusita.

Alderdi sozialetik ikusita, zer dakar lana banatzeak? Gustuko gauzak egiteko **asti** gehiago, informazio gehiago...; hor sar liteke unibertsitateko irakasleen urte sabatikoa ere, edo edozein langilek master bat egiteko hiru hilabete libre hartzeko eskubidea... Lan-kontratuak **malgutasuna** behar du izan. Adibidez, funtzio publikoan: Zergatik ez pentsatu jende-multzo batek nahikoa duela egun-erdiz lan eginda? Eta aurrezki-kutxetan beste hainbeste. Hau da, frantziarrek **temps choisi** esaten diotena. Hau da, **lan-hitzarmena izenpetzen** dutenean enpresak galdetzen dio: «Zenbat orduz lan egin nahi duzu?» Eta langileak:

LEHIAKIDE.- Lehia+kide. Competidor/a. Era berean: adiskide, lankide, ikaskide...
ATZERAPEN.- Atzera(tu)+pen, Retroceso. Aurkakoa: aurrerapen.
EKOIZPEN.- Ekoiz(tu)+pen. Produktzioa.
MENDERATU.- Dominar.
TXUKUN SAMAR.- Aski ongi. Bastante bien.

BEREN KABUZ.- Beren gisara, beren kontura.
LANUZTE.- Absentismo laboral.
ERATU.- Antolatu, tajutu. Organizar.
EUSKARRI.- Sostén.
GAU IZAN.- Gauza izan. Ser capaz.
SENDI.- Familia.

ASTI.- Beta, denbora.
MALGUTASUN.- Flexibilidad. Aurkakoa: zurruntasuna.
LAN-HITZARMEN.- Contrato de trabajo.
IZENPETU.- Sinatu. Firmar.

«Nik nahikoa dut sei ordurekin». Aukeratutako lanorduak, beraz.

H.- Lanorduen arabera **murriztuko** al diote soldata?

F.E.- Jakina.

H.- Ordu gutxiago lan eginez lanorduen produktibitatea igoko dela kontuan hartu gabe?

F.E.- Sistema tekniko batek ezin du hori guztia erabaki. Negoziazio kolektiboaren baitan dago hori. Kultura berri batez ari gara. Negoziazio kolektiboan lan-banaketari buruz horrelako irizpideak zabalitzen badira, garbi jokatu beharra dago, ezer ezkutatu gabe. Eta negoziaketa kolektiboan konfidantza dagoenean, zera ere pentsa lezake langileak: «Lan-eraketa berri honek dakarren produktibitate-igoera enpresaren irabazietara bakarrik doa. Eta ni ez nago ados horrekin». Aldaketa honek negozio kolektiboa aberastu egiten du. Ez dugu Kontsumorako Prezioen

Indizearen igoeraz bakarrik hitz egin behar. Frantziarrek eta alemaniarrek dioten bezala, arriskueta ere parte hartu beharra dago. Langilearen arriskua, jakina, ez da enpresariarena bezalakoa izango. Langileak ez du etxea hipotekan ipiniko lanean jarraitu ahal izateko. Baina emaitzetan nolabaiteko arriskua onartu behar du.

Eztabaida piztu nahi dugu. Ez dugu inor behartu nahi»


H.- Langile bakoitzak erabakitzen al du bere lana horrela antolatzea, ala enpresa osoak batera erabaki behar du hori?

F.E.- Maila ezberdinak daude. Nik uste dut **gehiengoaren** erabakia behar duela izan,

bestela oso zaila baita hau guztia bideratzen. Baina, lan-eraketa hau **hedatuko** balitz, nik uste dut iritsiko ginatekeela langile bakoitzak bere lan-ordutegia erabakitzera, langilearen egitekoa kontuan hartuta, jakina! Enpresa guztietan dago bere egitekoa betetzeko zortzi ordu baino gutxiago behar duen jendea. Zertarako pasa zortzi ordu lantegian? Enpresek murrizketak egitean, agian ez lukete inor kanpoan utzi beharrik izango, aski izan liteke lanorduak murriztea. Holandan, adibidez, administrazioaren langileen %30a ari da lanordu gutxiago egiten, eta horrek lagundu egiten dio emakumeari lan-mundura **hurbiltzen**. Holandan, oso herrialde aurreratua denez, gizonezko askok ere egin du aukera hori.

Hau guztia ez da bat-batean gertatuko, ordea.

H.- Eta administrazioari zer-nolako aldaketak ekarriko dizkio?



«Soldatak ez igotzeak etxeko beste batek lanpostua lortzea badakar, familiaren errenta hazi egingo da».

MURRIZTU.- Gutxitu, moztu, urritu. Recortar, disminuir.

GEHIENGO.- Gehien+go. Mayoría. Aurkakoa: gutxiengo.

HEDATU.- Zabaldtu. Extender, difundir.

HURBILDU.- Hurreratu, inguratu. Aurkakoa: urrundu.

F.E.- Ekonomiaren ikuspegitik **gizarteak** arazo handia dauka langabeziarekin: langabeziaren kontrako aseguruak Euskadin (EKA) 100.000 milioi pezetatik gora behar ditu urtean, **oker ez banago**. Eta pentsioetan, enplegu murrizteak ekarritako aurre-jubilazioak barne, 387.000 pentsionista dauzkagu. Eta sortzen ez den aberastasuna? Berrehun mila lagunetik gora lanik gabe egoteak **zerga** zuzen eta **zeharkakoak** murriztea dakar... Sektore publikoarentzat, beraz, ondorio **onuragarriak** ditu lanpostu gehiago sortzeak.

Bestalde, langabeziaren zeharkako ondorio batzuek, berehala **antzematen** ez badira ere, eragin izugarria dute. Adibidez, langabeek osasun-arazo handiak izaten dituzte, bai burukoak, bai bestelakoak ere. **Bazter geratzeak gogorkeria** ere sor lezake. Eta horrek badu bere kostua. Ni Estatu Batuetan izan naiz **oraindik orain**. Han 800.000 lagun daude erabat baztertuta, estatuaren **babesaren** beharrean. Erabat zokoratuta bizi dira Bronx eta horrelako auzoetan. Gu horretaraxe joan ginen, baztertuekin zer egiten zuten ikustera. Hemen agerian ez dago horrelakorik, familiaren babesa dutelako. Baina, horrela jarraitzen badugu, ez dakigu zertara iritsiko garen. Berrehun eta hoge mila lagun lanik gabe jende asko da.

58.000 lanpostu

H.- Lana horrela banatzeak Euskadiko Komunitate Autonomoan izango lukeen eragina aztertu duzue HERMES ikerketan. Laburtuko al diguzu **txosten** hori?

F.E.- Frantziako eredu bat aukeratu eta Euskadiko (EKA) zenbakietara **egokitu** dugu. Frantziarren ondorioak gurera ekarrita, 58.000 lanpostu sortzen ziren. Jende asko haserretu egin da gurekin datu hauek zabaldu ditugulako, gezurrezko **ametsak** sortzen ari omen garelako. Baina hori ez da horrela; Frantziako

eredua geureganatu besterik ez dugu egin. Gu ez gabiltza ametsetan. Hemen zein ari da ametsetan? Egoera hau bere horretan onartzen duena, eta gizarteak 220.000-230.000 langabeekin ezer gertatuko ez balitz bezala bizitzea baduela pentsatzen duena. Hori bai dela ameslaria, egoera horri ez baitago eusterik.

Frantziarren ondorioak gurera ekarrita, 58.000 lanpostu sortzen dira»

H.- Zenbat ordutako murrizketak aurrikusi zenituzten ikerketa horretan?

F.E.- Aukera ezberdinak azaltzen ziren. Baina jendeak 58.000 lanpostuko horri heldu zion gehienbat. Baina bazen beste **aurrikuspen** bat ere: geure lan-egutegia zenbat murriztu behar genuke den-denok lan egin ahal izateko? Murrizketak, jakina, soldatetan ere eragina izango luke. Bada, oso erraza da. Lanorduak eta soldata %19 jaitsiko bagenu, denok egingo genuke lan. Datu hori ez da asko zabaldu komunikabideetan. Zergatik ez dugu bide hori aukeratzen? Egin dezagun inkesta bat. Hori ez da amets egitea. Matematika hutsa da hori.

H.- Zuek Frantziako ereduaren oinarritu zarete iragarpenak egiteko. Baina eredu horrek nolako ondorioak izan ditu Frantzian?

F.E.- Frantziak lege bat dauka 1993.az geroztik. Langileek eta enpresak lan-orduak %15 gutxitzea **hitzaritzen** badute, enpresak abantaila fiskalak ditu. Ez da betebeharreko legea. Dena dela, frantziarrek ez dute oraindik lege horren eragina neurtu, nahiz eta zenbait enpresak bide horretatik jo duten: IBM, AIR FRANCE, RENAULT...

Alemanian, berriz, ondo neurtuta daude emaitzak. Lanordu-murrizketaz baliatu diren enpresetan guztira %0'8 lanordu gehiago egin dituzte, ekonomiak gora egin duelako; lanpostuak, berriz, %6'5 hazi dira. Beraz, eragina garbia da. Eta Holandan ere ondo neurtuta daude.

Ihardunaldi hauetan horrelako datuak zabaldu nahi ditugu, eta eztabaida sortu. Bukaera **gomendioak** ere atera nahi genituzke, eta bideak ireki. Baina hau oso bide luzea da.

Euskal ekonomia oso ondo doa, ekonomia formala. Jendeak uste du krisian gaudela, baina hori ez da egia. Ekonomia formala **osasuntsu** dago.

H.- Zer da ekonomia formala?

F.E.- Enpresak, lanean ari diren langileak, **azpiegiturak**, esportazioa... hori oso ondo doa. Baina ekonomiaren zati handi bat, 230.000 langabeen taldearena, oso gaizki doa. Eta ez dirudi konponbidean dagoenik. Eta zerbait egin beharko da, ezta?

Ekonomiaren hazkundeak ez du langabezia konponduko»

H.- Ez al da beste irtenbiderik ikusten?

F.E.- Nik lehengo batean, prentsaurreko batean, esan nuen ekonomiaren hazkundeak ez duela langabezia konponduko, eta, adituren batek bestela uste bazuen, froga zezala. Sail honetako ikerketa baten arabera, 2002. urtean ere %23ko langabezi tasa izango dugu, nahiz eta ekonomia 1998ra arte hazten jarraitu.

GIZARTE.- Sociedad.
OKER EGON.- Deskuidatuta egon. Estar equivocado/a.
ZERGA.- Impuesto.
ZEHARKAKO.- Indirecto.
Aurkakoa: zuzen.
ONURAGARRI.- Probetxuzkoa, etenkitsua. Provechoso.
ANTZEMAN.- Igerri, nabaritu.
BAZTER GERATU.- Quedar al margen.

GOGORKERIA.- Bortizkeria. Violencia.
ORAINDIK ORAIN.- Duela gutxi. Hace poco.
BABES.- Gerizpea. Protección.
TXOSTEN.- Informe.
EGOKITU.- Moldatu. Adaptar.
AMETS.- Sueño.
AURRIKUSPEN.- Aurrikus(i)+pen. Previsión.
HITZARTU.- Concertar, apalabrar.

GOMENDIO.- Aholkua. Recomendación.
OSASUNTSU.- Osasun+tsu. Saludable. Era berean: arriskutsu, euritsu, kementsu...
AZPIEGITURA.- Infraestructura.

EZINDUAK ERE GAI

3 Joan den hilean zuk eta biok ondotxo dakigun tokira **elbarrientzat moldatutako** kotxean abiada bizian eraman gintuen neska prestu eta ezin alaiagoak lore **ximel** bat zekarren bere aulki **higikorrean** erantsita bandera **bailitzan**... EZINTASUNA!! Hau ez dago irakurtzerik! Eta **ezinak etsipena** dakar. Zertarako segi irakurtzen?... Antzeko zerbait gertatzen zaio **ezindu** askori **oztopoz jositako** hirietan, nahiago etxean gelditu. ONCE fundazioak «Guztion Mundu Bat» erakusketa ibiltarian **ezinduen** arazoak erakutsi dizkigu **oraindik orain**, eta bide batez arazo horiek **gainditzeko** moduak badaudela frogatu ere bai.

Erakusketa hiriburuz hiriburu dabil. Iruñea, Bilbo eta Donostia izan da duela gutxi, eta datorren udan Gasteizera eramango dute. Arrakasta izugarria izan du, batez ere irakaskuntza arloan. Milaka eta milaka ikasle hurbiltzen dira egunero ONCEren erakusketara. Donostian, adibidez, lau egunetan hiru mila ikasletik gora izan dira bertan. **Hura zalaparta!**

Itsuen labirintoan estu eta larri

Zerk **eman dizu atentzioa** erakusketa honetan? galdetu dugunean, ia denek erantzun bera eman digute: **itsuen labirintoak**. Izan ere, bisitaria itsuen **larruan** sartzen da denbora puskatean, itsuek gure hirietan dituzten trabekin egiten du topo eten gabe.

Labirintoaren sarreran beturreko ilun-ilunak jantzi dizkigute. **Alboetatik** ere ez da ezer ikusten. Eta eskuan makila. Ezkerrera, gero eskuinera, gero ezkerrera, eskuinera... halako batean ez dakigu non gabiltzan, non dagoen atzea eta non aurrea, baina beturrekoak ezin erantzi hala ere. Baten batek lagundu digu aurrera egiten, eskerrak! Aurpegiaren parean **oihal** batekin egin dugu topo.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

EZINDU.- Elbarria. Impedido, tullido.
ELBARRI.- Parálitico/a.
MOLDATU.- Egokitu. Adaptar.
XIMEL.- Ihartua, sikatua. Marchito, seco.
HIGIKOR.- Mugikorra. Móvil.
ERANTSI.- Pegatxi. Adherir.
BAILITZAN.- Como si fuera. Era berean: bailiran. Como si fueran.

EZINTASUN.- Ezina. Impotencia.
ETSIPEN.- Etsi+pen. Desesperanza. Era berean: ziurtapen, iragarpen, sustapen...
OZTOPO.- Eragozpena, trava. Obstáculo.
JOSI.- Bete.
ORAINDIK ORAIN.- Orain dela gutxi. Hace poco.
GAINDITU.- Garaitu, goitu. Superar.

HURA ZALAPARTA! - Hura zarata! ¡Menudo follón!
ATENTZIOA EMAN.- Llamar la atención.
LARRU.- Azala. Piel.
ALBO.- Aldamena. Lado, vera.
OIHAL.- Ehuna. Tela, lienzo.



Ukituz ikasten dute non dagoen Afrika edo Asia.

Kafetegietako toldeok burdina izan dute. A ze **kaskarrekoak** hartzen dituzten itsuek burdin horiekin! Zorionez, oihal honek ez zuen horrelakorik. Burua makurtu eta segi. Aldapatxo bat jarri dute zoruan; ez dira ausartu **espaloien koska** jartzera. Koska horietan muturreko ederrak hartuko lituzke jendeak... Nola edo hala iritsi gara, bizpahiru minutu ilunpean ibili ondoren. Betaurrekoak kendu dizkigutenean hura lasaitua! Orain ulertzen dugu zergatik ibiltzen diren txakur gidariekin, zergatik eskatzen duten espaloietako koskak kentzeko, zergatik nahi dituzten hotsezko semaforoak...

Aipatutako labirinto hori erakusketaren bukaeran dago. Baina, agian horixe zen eman beharreko lehen pausua, *ezinduen* larruan sartu alegia.

Sarreran kupoi-salmentaren historia aurkezten da **iragarki** handi batzuen bidez, kupoi izan baita ONCEren finantziabide nagusia. Gero, bisitariak hezkuntzako **gunera** doaz. Monitoreek erakusten diete zer-nolako **tresneria** erabiltzen duten eskoletan. Umeek begiak ixten dituzte eta banan-banan erreliebezko liburua ikutzen dute: eguzkia, mendia, zuhaitzak... eta marrazkien azpian braille-sisteman idatzitako testuak. Lur planetaren globoak ez du kolorerik, ez marrazkirik; ukituz ikasten dute non dagoen Afrika edo Asia. Puzzleak ere itsuei egokituta daude... Baina dena ez da itsuentzat, ONCE fundazioak 1985.az geroztik

bestelako ezinduak ere bere barruan hartzen baititu. Elbarri zerebralentzako eskola-mahaia, gutxi ikusten dutenentzako lupa... Umeak **harri eta zur** daude makina batek liburuetao orriak nola pasatzen dituen ikusiz.

Ezintasuna gainditzeko tresneria


Itsuentzako **iparrorrazak** eta erlojuak, **gorrentzako iratzargailuak**, gor eta mutuentzako telefonoak... Bai, mutuek ere telefonoz hitz egiten dute, telefonoko tekla batzuk **sakatu**. Hariaren bestaldekoa gorra bada, pantaila txikian

irakurriko du besteak bidalitako **mezua**; entzuten badu, ordea, langile batek irakurriko dio mutuak idatzitakoa. Ordenagailuen atala ere ikustekoa da. Ordenagailuak nola moldatu dituzten itsuek idatzi eta irakurri ahal izateko! Baina horren berri baduzue **HABE** aldizkariaren 246. alea irakurri zenuenok.

Etxean ere **makina bat tresna** berezi badaukate gaur egun ezinduek: **besamotzentzako** platerak, elbarrientzako hozkailu, eta sukaldeko bestelako **altzariak**, gora eta behera egiten duten ispilu, ohe, aulkiak... Gaurko egunean elbarri asko bakar-bakarrik bizi dira etxean, bakarrik joaten dira lanera kotxean, kirola egiten dute... **Ezinduak** edozertarako gai direla frogatzen ari dira, muga asko gizartearenak direla, ez haienak.

Eskoletako umeak, saskibaloiko jarleku berezietan eserita, baloia saskiratzen saiatzen dira, baina indarririk ez. Ping-pong antzeko itsuen jolasean ere aritzen dira gustora. Begiak estalita, pilotaren hotsak erakusten die non jo behar duten.

Erakusketatik atera bezain laster elbarri bat ikusi dugu bere aulki motordunean pasioan. Agian horretarako ere balio izan du erakustaldi honek: guztion **ikusmena zorrozteko**.



Jendea harritu egiten da informatikako aurrerapenak ikusita.


KASKARREKO.- Burukoa, muturrekoa.. Golpe.
ESPALOI.- Acera.
KOSKA.- Desnivel.
IRAGARKI.- Anuncio publicitario.
GUNE.- Esparrua, lekua. Area.
TRESNERIA.- Utillaje.

HARRI ETA ZUR EGON.- Txundituta edo guztiz harrituta egon.
IPARRORRAZ.- Brújula.
GOR.- Sorra. Sordo.
IRATZARGAILU.- Iratzarr(i)+gailu. Esnatzeko tresna. Despertador. Era berean: igogailu, garbigailu, zulagailu...
SAKATU.- Zapaldu. Pisar, presionar.

MEZU.- Mensaje.
MAKINA BAT TRESNA.- Tresna asko.
BESAMOTZ.- Besatxangoa. Manco.
ALTZARI.- Errediza. Mueble.
ZORROZTU.- Afilar. agudizar.

PERRETIXIKOEKIN ARRISKURIK EZ

2 Perretxikoekin kontuz ibili! Ondo ezagutzen ez baduzu, ez **jaso**! Horixe da **gomendioa**. Baina Bilbon bizi bazara, ez dago arriskurik. Erriberako Merkatuan, 3. **solairuan**, esango dizute zein den ona eta zein txarra. Bilboko Udaleko Albaitaritza-lkuskatzailtzaren **doaneko** zerbitzua da hori. Astelehen eta astearteetan jende **dezente** hurbiltzen da, beste astegunetan, **ostera**, ez hainbeste. Ordutegia: goizeko zortzietatik ordu bata arte. Eta lasai! Ez dizute galdetuko non bildu dituzun.



EZ DUGU SEKULA IKASIKO HORTZAK GARBITZEN

2 Hortzak **zeharka**, ezker-eskuin, garbitu behar zirela erakutsi ziguten. Orain goitik behera egin behar dela diote **haginlari** guztiek. Jan ondoren lehenbailehen garbitu behar direla entzun dugu beti. Lehengo batean, ordea, zera irakurri dugu osasun-aldizkari batean: fruta **mikatzak** eta **zukuak** esmaltea **beratzen** dute. Berehala garbitzen badira, hortzaren esmaltea joan egiten da. Ordu bete itxaroteko gomendatzen du aldizkari horrek. Zeini sinistu?

FRANTSESA/ESPAINOLA

2 Betidanik orain hamar-hamabost urte arte herri bat ginen Iparraldekoak eta Hegoaldekoak. Orain ez **nonbait**. Iparraldekoak **gabatxoak** dira eta hegoaldekoak **espainolak**. Giro hori ari da zabaltzen gazteen artean. Hegoaldeko kotxeei **gurpilak** zulatzen dizkiete Iparraldean, eta Hegoaldean Iparraldeko kotxeak erre egiten dituzte. Muga fisikoak kentzen hasiak dira —oso gutxitan gelditzen gaituzte kotxea **miatzeko**—, baina bestelako mugak gero eta handiagoak dira.



URBASAKO LASAITASUNA

2 Lagun bat hiriko estuasunetik ihesi joan da Urbasara. Hango behien begiratu eta **ibilкера motelak** berehala lasaitu du. *Hau bakea!* esan du **bere artean**, eta paseatzera joan da. **Diru-zorroa** kotxearen barruan utzi du; zergatik kezkatu hemen? Ordu beteko ibilaldiaren ondoren, kotxera itzuli da, eta dirurik ez barruan... Ez diote ez leihorik txikitu, ez **zerrailarik** behartu... Horiek hiriko lapurren ohitura txarrak dira. Lan garbia egin diote: zerrailaren azpian zulo txiki-txiki bat, beste arrastorik ez. Lapurrek ere lasai-lasai egiten dute beren lana Urbasan.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

JASO.- Recoger.
GOMENDIO.- Aholkua. Recomendación.
SOLAIRU.- Piso.
DOAN.- Debalde, dohainik. Gratuito.
DEZENTE.- Franko, asko. Bastante.
HURBILDU.- Hurreratu, inguratu. Acercar.

OSTERA.- Ordea, aldiz. En cambio.
ZEHARKA.- A través.
HAGINLARI.- Dentista.
MIKATZ.- Mingotsa. Acido.
ZUKU.- Zumo.
BERATU.- Bigundu. Ablandar.
NONBAIT.- Dirudienez, antza denez. Al parecer.

GURPIL.- Pirrila. Rueda.
MIATU.- Arakatu. Escudriñar.
IBILKERA.- Paso, andar.
MOTEL.- Mantsoa, geldoa. Lento.
BERE ARTEAN.- Bere baitan, berekiko. Para sus adentros.
DIRU-ZORRO.- Portamonedas.
ZERRAILA.- Cerradura.

HAU MUNDUA

ARGAZKIA: X. ELGEZABAL



MARKOAK ALOKAIKUAN

2 Horixe egiten du Madrileko enpresa batek. Pintoreei markoak alokatu. Izan ere, garestiak dira oso. Marko bakar bat ez da garestia. Baina pintoreak **erakusketa** batean koadro asko baditu... **A ze diru-jorra markotan!** Markoak aluminiozkoak dira eta koadroaren tamainara **egokitzen** dira. Kristala ere enpresak jartzen du. Eta erakusketara eramaten ditu pintorearen koadroak, eta erakusketa bukatzen denean, jaso egiten ditu. Eta galeriak saldu ez duena etxera itzultzen dio pintoreari. Markorik gabe, jakina!

LAPUR BERRIAK


2 Eta artearekin jarraitzen dugu. **Argazkilaritza** ere artea baita. Autobusetako markesinatan **iragarkiak** egoten dira, iragarki **erraldoiak**. Eta argazki horietan neska-mutil **apartak** ateratzen dira, gorputz ederrekook. Ba jendeak **lapurtu** egiten ditu iragarki horiek. Eta etxera eraman. Zertarako? Gelan jartzeko poster moduan.

Lapurrak mutilak dira normalean. Batzuetan neskek beren senargaiak edo beren anaiak bidaltzen dituzte lapurreta egitera.



ARGAZKIA: X. ELGEZABAL

ARGAZKIA: X. ELGEZABAL



Usurbil

UDARREGI BERTSOLARIA

2 Orain 100 urte hil zen Udarregi bertsolaria, Juan Jose Alkain Iruretagoiena. Ez zekien idazten, baina zeinu-sistema bat aurkitu zuen idazteko, marra batzuk. Marra edo arrasto horiek **teila**-puska batekin egiten zituen **garia jotzeko** lekuan. Gero, marra horiek «irakurriz» abestu egiten zuen Usurbilgo Jose Txiki organojolearen aurrean. Organojoleak Udarregik esandakoa idatzi eta inprentara eramaten zuen. Aiakoa zen Udarregi, baina Usurbilen hil zen. Bi herri hauek **bat egin dute** irailaren amaieran Udarregi **omentzeko**. Eta zenbait egunez Aita Zavalak, Andoni Egañak, Juanito Dorronsorok eta abarrek **aztergai** izan dute bertsolari bitxiaren lana.

SARA BALABAGAN-EN ALDE

2 Neskame filipinarra da Sara. 16 urte ditu. Bere nagusiak **bortxatu** egin zuen, eta **ez behin bakarrik**. Sarak nagusi arabiarri **aiztoa** sartu zion Arabiar Emirrerri Batuetan. Sara epaitu egin zuten, eta gartzela-zigorra ezarri zioten, zazpi urtetakoa. Handik gutxira berriz aztertu zuten Sararen **jarrera**. Epaia: **heriotz-zigorra**. Mundu guztitik iritsi dira eskutitzak Arabiar Emirrerri Batuetara. Heriotz-zigorren ordeztu urte beteko gartzela-zigorra eta 100 zigorkada emango dizkiote. Hori izan da azken epaia.

Filipinako 500.000 bat filipinar daude neskame Emirrerri horietan, eta ehundoko **jipoiak** hartzen dituzte askok.



ALOKAIRU.- Errenta, akuraketa. Alquiler.

ERAKUSKETA.- Exposición.

A ZE DIRU-JORRA MARKOTAN.- A ze gastua markotan! ¡Vaya gasto en marcos!

EGOKITU.- Moldatu. Adaptar.

ARGAZKILARITZA.- La profesión de la fotografía.

IRAGARKI.- Anuncio publicitario.

ERRALDOI.- Oso handia. Enorme.

APARTA.- Bikaina. Extraordinario.

LAPURTU.- Harrapatu, ostu. Robar.

TEILA.- Teja.

GARIA JO.- Trillar el trigo.

BAT EGIN.- Batu. Unirse.

OMENDU.- Homenajear.

AZTERGAI.- Ikergaia. Materia de análisis.

BORTXATU.- Forzar, violar.

EZ BEHIN BAKARRIK.- No sólo una vez.

AIZTO.- Labana. Cuchillo.

JARRERA.- Portaera.

Comportamiento.

HERIOTZ-ZIGOR.- Pena de muerte.

JIPOI.- Paliza.

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

Helbide honetara bidali behar da:

HABE aldizkaria

Vitoria - Gasteiz kalea, 3

20009 DONOSTIA

Izen-deiturak: Zenbakia:
 Kalea: Probintzia:
 Herria:
 HABE Aldizkaria jaso nahi dut etxean.
 Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez (Urtean hamaika ale: 2.950 pezeta).
 Hauxe da: Bankua edo Aurrezki-Kutxa
 Sukurtsala:
 Zenbakia:

BAI, ESAN

OLENTZEROK KAFE-
-ANTZOKI EUSKALDUNA
UTZIKO DU BILBON

3 Komunikabideetan 100 lanpostu berritarako **deialdia** aurkitu genuen. **Ezinbesteko** baldintza zuten lanpostu-eskatzailleek euskara jakitea. Bilbon **behar** egiteko nahi zituzten langile horiek guztiak. Lanpostuak, bestalde, ez zuen zerikusirik Administrazioarekin.

Ehun horietatik 35 kafe-
-antzokirako nahi zituzten!!!
Bilboko ZENBAT GARA kultur
elkartea eta GABRIEL ARESTI
euskaltegia zeuden **aipatutako**
iragarki horren atzean.
Aurtengo Gabonetan, San

Bizente kalean, kafe-antzoki
euskalduna ireki nahi dutela jakin
dugu.

Bilbon 37.000 euskaldun
daude gaur egun, eta beste
80.000 *ia* euskaldun. **Ez dira gutxi**


ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL



San Bizente kalean lan eta lan ari dira.

ANTZOKI.- Teatro.
DEIALDI.- Convocatoria.
EZINBESTEKO.- Behar-
 -beharrezkoa, derrigorrezkoa.
 Imprescindible.
BEHAR.- Lana. Trabajo.
AIPATU.- Aitatu. Mencionar.
IRAGARKI.- Anuncio publicitario.

EZ DIRA GUTXI HORRAATIK!- ¡Desde
 luego que no son pocos/as!
SAKABANATU.- Barreiatu.
 Dispersar.
EUSKARAZ EGIN AHAL IZATEKO.-
 Euskaraz berba egin ahal izateko.
 Para poder hablar en euskera.
IAZ.- Joan den urtean. El año
 pasado.



Todor Etxaburu, Gabriel Aresti euskaltegiko zuzendaria eta ZENBAT GARA elkartearen partaidea.

horraatik! Baina elkarrekin topo egin eta euskaraz mintzatzeko aukerarik ez dute ia; hain daude **sakabanatuta!** Euskaldunak euskaldunekin **euskaraz egin ahal izateko**, besteak beste, sortu zen **iaz** ZENBAT GARA kultur elkarteak. Bertso-afariak, bidaia euskaldunak, ikastaroak, kantaldiak eta beste hainbat ekitaldi eratu dituzte geroztik. **Eremu estuko** ekintzak, hala ere. Bilbok zerbait zabalagoa behar zuen, euskaldun guztien **topagune** irekia. Kafe-antzoki euskaldunarekin amets egin zuten ZENBAT GARA eta Gabriel Arestikoek. Beste zenbait euskaltzaleri proiektua azaldu eta «ia zorotzat» hartu zituzten. Ez zuten **amore eman**, hala ere. Nola edo hala dirua bilatu **bazkideen** artean, eta **ekin** egin zioten lanari.

Bilbo erdi-erdian

Laster, aurtengo Gabonetan, ametsa **gauzatua** ikusiko dute San

Bizente elizaren ondoko areto handian. Lehenago zine-areto zena korrika eta presaka moldatzen ari dira **igeltseroak**. Kafe-antzokia ia bostehun metro karratuko **egoitza** da, bi mailatan zatitua. Amaitzen denean, toki dotorea, euskarak **duintasuna** behar duelako. **Lantzen** ZENBAT GARA elkartearen **hiruhilabetekarian** idatzi zutenez, Euskara «*marginaliatik*» atera nahi dute. **Bada garaia gheztotik ateratzeko, harrotasunez, plazaratzeko nagusitasunez, kafe-antzokiratzeko duintasunez.**

Bilbon 37.000


euskaldun daude eta 80.000 ia euskaldun

Bilbon goizetik gauera, goizaldera hobeto esan, euskaraz bizitzeko modua izango dute bilbotarrek: euskaraz gosaldtu,

euskaraz goizeko **basoerdiak** edan, euskaraz bazkaldu eta bazkalosteko tertuliak ere euskaraz. Afaldu eta afalosteko parrandaxoak egiteko ere euskara ezinbesteko tresna izango da. Bestalde, kultur ekitaldiak izango dira **egitasmo** honen **bizkarrezurra**. Jose Anjel Irigarai ibiliko da koordinazioan. Baina hura etorri aurretik, ZENBAT GARA-koek zenbait proposamen eginak dituzte. Eskenatokia musika-saioak, antzerki-emanaldiak, literatur irakurraldiak, bertso-saioak... antolatuta nahi dituzte. Hitzaldiak, mahai-inguruak, disko eta liburu **aurkezpenak**, bideo-emanaldiak eta bigarren **solairuan** egingo dituzte, jendea behean patxadan dagoen bitartean.

Musika-saioak,
antzerki-emanaldiak,
bertso-saioak,
hitzaldiak...

Beste batean, kafe-antzokia irekitzen dutenean, bisitan joango gara **agindu** diegu. Argazki politagoak eta zer kontatu gehiago izango da orduan. Agian lehen kafe-antzoki euskaldunaren ondotik, beste **kimu** batzuk sortuko dira beste hiriburuetan.



Lantzen, ZENBAT GARA elkartearen aldizkaria.

EREMU ESTU.- Esparru murrizta. Espacio reducido.
TOPAGUNE.- Bilgunea. Lugar de encuentro.
AMORE EMAN.- Etsi. Ceder, echar la toalla.
BAZKIDE.- Partaidea, sozioa. Miembro.
EKIN.- Hasiera eman. Empezar.
GAUZATU.- Zertu. Realizar.

IGELTSERO.- Albalñil.
EGOITZA.- Sede.
DUINTASUN.- Dignidad.
HIRUHILABETEKARI.- Trimestral.
HARROTASUN.- Orgullo.
ANTZOKIRATU.- Poner en escena.
BASOERDI.- Chiquito de vino.

EGITASMO.- Programa.
BIZKARREZUR.- Columna vertebral.
AURKEZPEN.- Aurkez(tu)+pen. Presentación.
SOLAIRU.- Piso.
AGINDU.- Hitza eman. Prometer.
KIMU.- Muskila, aldaska. Retoño.

IÑAKI GASTESI: «Egun, beste ezerk baino gehiago, ekologiak kezkatzen nau»

3 Añorgan, Rezola lantegi inguruko etxe batean jaio zen. Lehenbizi Rezola-renean egin zuen lan; gero, enpresa honek utzitako lokal batean, Hernaniko Ergobian, berak eta beste hamasei lagunek Orona **igogailu** lantegi-kooperatiba famatua sortu zuten. Bertan aritu da orain hiru urte erretiroa hartu zuen arte.

Lanetik erretiratzeak, ohi denez, **astia** ugaltu dio gustuko gauzetarako, esaterako, egunero igerilekura joateko, eta baita sinesten duen giza talde eta erakundeetan parte hartzeko ere. Aditza genuen ez zuela oraingoxekoa direlako taldeetan parte hartzeko grina hori, **eskarmentu** luzea zuela gai horretan. Bere esperientziaren berri emateko eskaturik, ondoko iritziak **jaulki** dizkigu apal bezain samur, duen mundu-ikuskerari dagokionez.


HABE.- Añorgan jaio eta duela urte-mordoa Hernanira etorria zara. **Alde** handia **nabaritu** al zenuen batetik bestera?

IÑAKI GASTESI.- Aldaketa bai, era askotakoa. Nik Añorga maitea dut oso, baina esate baterako, euskaltasunaren aldetik aldaketa onerako izan zela esan behar dut. Han, kalean, batez ere Rezola enpresagatik, bertako nagusi-jendeak eta hala egiten zutelako, nahiz eta jakin euskaraz, erdaraz egiten genuen, eta «Buenos días» esaten genion elkarri; hemen berriz, Hernanin, kalean topo egin eta «Kaixo, egun on». Aldea nabaritu nuen. Artean Hernanin geroko **etorkin**-etorrera handiena gertatu gabea zen.

H.- 60ko hamarkadan Enseñanzas del Urumea zeritzan ikastola **abian jartzen** ahalegindu zirenetako bat izan zinen, ezta?

I.G.- Bai, Joanito Goya, Joakin Zubeldia, eta horiekin batean. Hasieran oso ondo; jarri genuen babesle bezala Francoren erregimenetik **babesteko**, militarra

izandako bat, eta aurrera egin genuen, harik eta alderdi politikoak muturra sartzen hasi ziren arte. Boterea esku gutxitan pilatzen da, sortzen dira «kamarilla»k eta akabo. Ikastola-munduan ere... Andereñoen artean arazoak sortu ziren: Taldetxoak sortzen dira, elkarri laguntzen eta babesa ematen



IGOGAILU.- Igo+gailu. Ascensor. Era berean: garbigailu, zulagailu, hozkailu...

ASTI.- Beta, denbora.

ESKARMENTU.- Esperientzia.

JAULKI.- Bota, esan.

ALDE.- Diferentzia.

NABARITU.- Sumatu. Sentir.

ETORKIN.- Inmigrante.

ABIAN JARRI.- Martxan jarri.

BABESTU.- Proteger.

NON ESATEN DIGUN.- Mira que nos dice.

MAILEGU.- Préstamo.

GARDENTASUN.- Garden+tasun. Transparencia. -TASUN atzizkiak kalitate adierazten du. Esate baterako: maitasun, elkartasun, egokitasun.

diotenak. Ni ez naiz taldearen arrimuan ibili zale. Bularra agerian ibiltzearen aldekoa naiz, ez tiroka, baina bai norbere iritziak agertzeko.

Begira zer gertatu zitzaigun geuk sortutako kooperatiban. Hasieran gauzak oso ondo ibili ziren. 17 kooperatibista ginen; etorri ziren Lasarteko batzuk, hasi ziren inondik inora gora eta gora egin nahian... zazpi nagusi genituen «los siete magníficos» deitzen genien: gerentea, salmenta-burua... Galdetu nion behin ekonomiaren arduradunari zer moduz gindoazen, eta ondo, ondo esan zidan; handik hilabetea baino lehen **non esaten digun mailegu** bat eskatzeko dirua jarri behar genuela kooperatibista guztiok. Elkartasun eta **gardentasun** bikaina, denok ere, izenez behintzat, kooperatibistak gintuzun enpresa baterako.

H.- Ikastolan guraso-elkartean egon zinen, gau-eskoletan berriz helduei euskarazko klaseak ematen ere aritua zara...

I.G.- Bai, 13 urte izango dira gau-eskolatik atera nintzela. Mintzapraktika eman izan dut; egia esan, prestakuntza handiegirik gabe. Lehenengo Donostian ikastaro batzuk eman zizkiguten eta gero geu hasi ginen Karmelo Labaka eskola profesionalean. Gero ikusi nuen jende gaztea gu baino prestatuago zetorrela, eta utzi egin nuen.

H.- Ikastolak eta gau-eskolak, bertsolarien susperraldia, euskal kantarena «Ez dok amairu» Francoren garaian; EITB, irakaskuntzako ereduak, administrazioko hizkuntz eskakizunak eta euskara-elkarteak Francoren ondorenean. Hemen Hernanin, **kasu**, *Dobera* Euskalgintza nola ikusten duzu, gora ala behera?

I.G.- Nik uste euskara sendotzera bideratutako ahalegin hauek delako Burgosko prozesua gertu zen aldi bitartean jo zutela goia. Euskara Francoren kontra egiteko modu bat zen. Gero abertzaleak alderdi politiko desberdinetan

sakabanatzearekin... Euskara-elkarteek ere izango dute nahiko lan alderdi desberdinetako jendea euskalgintzara biltzen. **Gotzain** berriekin sortu den polemika datorkit burura. Nik galdetzen dut: alderdi abertzaleetako buru-batzarrek edo mahai nazionalak euskaraz egiten al dituzte euren bilerak? Gizartean hierarkia da nagusi; puntakoek etsenplu ematen ez badute... nolanahi ere nik mementu honetan ez diot lehen ematen nion adina garrantzi ematen hizkuntzaren **auziari**, gehiago kezkatzen nau mundu zabalean gertatzen ari denak; oraindik oraingo Mururoako entsaio nuklearrek —Chiracek ez du lotsarik esan dituenak esateko—, hango eta hemengo gerrek. Nik uste, kontsumismoan erori garela, dirua egin, gauzak erosi, kontsumitu; beste ezertan ez dugu pentsatzen. Eta horretan bat dator eta erabat **murgildurik** dago alderdi politiko guztietako jendea. **Izadia** hondatzeak, basoak **basamortu** bihurtzeak, ura eta airea kutsatzeak ez digu ardura; armak egin eta armak egin, elkarri **lagundu beharrean**, elkar hiltzeko. Bi urte badira mugimendu antimilitaristan nagoela; hor ere talde eta iritzi desberdinak daude, ni **kontzientzi eragozpenekoa** naiz, KEMekoa.

«Konpromezurik ez hartzekotan sinesmenak alferrikakoak dira»

H.- Euskadin bertan ere badaukagu ba militarismo edo indarkeriaren arazoa. Irtenbide azkarrik eta egokirik ikusten al diozu hemengo egoerari?

I.G.- Ez. Nik uste **iraultzak samurtasunez** egin behar direla; ez tiroz, elkar errespetatuz baizik. Niri bizipoza ematen didana —*Integral* aldizkariaren La Nueva Conciencia izeneko alea erakusten dit, eta bertan Erich

Fromm: «La búsqueda de la Libertad» deritzan artikulua—, eta nire moduan kristautasunarekin **etsita** dagoenarentzat nik uste gisa honetako ideietan oinarritutako moral laikoa dela komenigarriena: «Prestasun bat izatea gauzak edukitzeari **uko egiteko**, hain zuzen geure osotasunean izatera iristeko. Segurtasuna izatea, identitate-sentimendua eta konfiantza nork bere buruarengan, zertan oinarritua? Ba, norbera den horretan, beste gizakiekin harremana izan, interesatu, maitatu eta solidario izateko **ahalegin** horretan. Ez oinarritu ahal den guztia edukitzen, zeureganatzen eta menderatzen, hartara nahi ez dela geure jabeen morroi bihurtuz. Bizitza bere agerpen guztietan maitatu eta errespetatzen saiatu. Norberaren eta **lagun hurkoaren garapen** osoa bihurtu bizitzako **helburu goren**».

H.- Hauek praktikara eramateak emango ditu bere lanak, kontuan izanik gure mendebaleko gizartea, zuk gorago esan bezala, beste ezertara baino gehiago kontsumismora **lerratzten** ari dela.

I.G.- Bai, baina konpromezurik ez hartzekotan sinesmenak alferrikakoak dira. Greenpeace moduko erakundeetan sinesten dut, eta **bazkide** naiz. Hernanin mahaia jarri eta 140 sinadura bildu genituen duela gutxi. Baten batek saltsero samarra naizela esango du, baina Amnesty Internationaleko kide ere bai. Badago hor sail bat Presazko Ekintzak deritzana, hola baten bat ejekutatzen dihoazenean eta, hango Gobernuari gutun bat bidaltzeaz arduratzen gara horrelakorik egin ez dezaten, heriotz zigorraren kontra gaudenez gero. Lehen ere esan dizut mugimendu antimilitaristan parte hartzen dudala. Gauza hauetan sinestu eta sinesten dudala ekintzetan erakutsi nahi nuke.

Pako Sodupe
Pasaiaiko Udal Euskaltegiko irakaslea

KASU.- Adibidez. Por caso.
SAKABANATU.- Barreiatu. Dispersar.
GOTZAIN.- Apezpikua. Obispo.
AUZI.- Cuestión, pleito.
MURGILDU.- Sumergir.

IZADI.- Natura. Naturaleza.
BASAMORTU.- Desertua, eremua. Desierto.
LAGUNDU BEHARREAN.- Lagundu ordez edo partez. En lugar de ayudar.
KONTZIENTZI ERAGOZPEN.- Objeción de conciencia.
IRAULTZA.- Revolución.
SAMURTASUN.- Samur+tasun. Goxotasuna. Dulzura, suavidad.


ETSI.- Amore eman. Tirar la toalla.
UKO EGIN.- Ezetsi, arbuia. Renunciar.
AHALEGIN.- Saioa, Esfuerzo.
LAGUN HURKO.- Próximo.
GARAPEN.- Desarrollo.
HELBURU GOREN.- Máximo objetivo.
LERRATU.- Makurtu. Inclinarsen.
BAZKIDE.- Sozioa, partaidea. Miembro.

PORRUSALDA

ONTTO-NAHASKIA

2 Osagaiak: onttoak, tipula, **baratzuria**, arrautza eta olio.

Onttoak zailak dira **biltzen**, baina errazak prestatzen. Tipula eta baratzuria **xehetu** eta **su motelean gorritu** piskat. **Erantsi** gero ontto-zatiak, eta hogeit bat minutuz eduki sutan, estalita. Arrautza **irabiatu** ondoren zartaginera bota eta eragin. Ez utzi lehortzen.



TIPULAK MALKORIK GABE ZATITU


2 Jende askok **gorroto** ditu tipulak. **Zuritzen** eta zatitzen hasi eta begiak malkoak **isurtzen** hasten dira. Bi **gomendio** emango ditugu hemen:

- Tipula **lapikoan egosteko** bada, ur-txorroaren azpian zatitu.
- Frijitzeko bada, urak **zipriztinak** eragingo ditu. Beraz, urik ez. Igeritarako betaurrekoak jantzi eta kito. Ateko txirrina jotzen badute, orde, gogoratu betaurrekoekin zaudela.



PINTURA ZAHARRA, BERRI

2 Pintura bere potoan jasotzen denean azal lodi-lodia egiten zaio gainean. Pintura-potoa **buruz behera** jartzen baduzu, berriz, ez da horrelakorik gertatuko. Zergatik? Tapatik ez zaiolako haizerik sartuko



BRONKIOAK GARBITZEKO BERBENA-BELARRA

2 Zartaginean olio-piskat ipini berotzen. Lau baratzuri-ale azal eta guzti gorritu. Ondoren, baratzuriak zuritu eta **sardeskaz** zapaldu. Berbena-belar xehetuarekin nahastu zartaginean, eta, bukatzeko, **arrazutz-zuringoa** erantsi. Ez da jateko, noski. Bizkarrean ipintzeko enplastoa da. **Oihal** batean bilduta jartzen da. Baina kontuz! Ez da ume txikientzat ona.

ONTTO-NAHASKI.- Revuelto de hongos.

BARATZURI.- Berakatza. Ajo.

BILDU.- Recoger.

XEHETU.- Txikitu.

Desmenuzar, triturar.

SU MOTEL.- Fuego lento.

GORRITU.- Dorar.

ERANTSI.- Gehitu. Añadir.

IRABIATU.- Batir.

LEHORTU.- Idortu, sikatu. Secar.

MALKO.- Lágrima.

GORROTO.- Ezinikusia, herra.

Aversión.

ZURITU.- Azala kendu. Pelar.

ISURI.- Derramar.

GOMENDIO.- Aholkua.

Recomendación.

LAPIKO.- Eltzea. Olla.

EGOSI.- Cocer.

ZIPRIZTIN.- Salpicadura.

BURUZ BEHERA.- Cabeza abajo.

BERBENA.- Hinojo.

SARDESKA.- Tenedor.

ARRAUTZ-ZURINGO.- Clara de huevo.

OIHAL.- Paño.

DURANGOKO AZOKA

Abenduaren 6, 7, 8, 9 eta 10ean izango da Durangoko XXX. Euskal Liburu eta Disko Azoka. Egun horietan plazaratuko diren zenbait idazlanen aurrerakinak argitara emango ditugu. Gustokoak badituzue, badakizue zer egin...


Xabier Mendiguren Elizegi Bekatuaren itzala (Literatura)

Xabier Mendiguren Elizegi beasaindarra da, 1964an jaioa. Euskal Filologian lizentziatua da EHU-n eta Filologia Hispanikoan UNED-en. Garai batean irakaskuntzan aritu eta gero, aspaldi honetan argitaletxe batean ari da editore-lanetan eta literatur kritika ere egiten du zenbait komunikabideetan.

Haur eta gazteentzako literaturan liburu mordoska kaleratu du: *Estitxuk pirata izan nahi du*, *Ametsen kontrabandista*, *Harrika*, *Patakon*, Joxemeren abentura saila eta beste hainbat.

Antzerki-idazle ere bada, eta hauek dira bere obretako batzuk: *Kanpotarrak maisu*, *Pernando bizirik hago oraindiko*, *Publikoari gorroto*, *Zabortegia*, *Garai(a) da Euskadi*, *Hilerri itxia*, hauetako asko sariak irabazitakoak.

Helduentzako narratibetan, azkenik, orain arte bi ipuin-bilduma kaleratu ditu: *Sei ipuin amodiozko* eta *Hamalau*, eta oraingo hauxe *Bekatuaren itzala* du lehenengo eleberria, Euskaltzaindiaren iazko *Txomin Agirre* saria eman ziona, eta ELKAR argitaletxeak Durangoko Azokarako aterako duena.



hotza eta **laioiza**, eta oraindik ere makal samar banabil ere, elur izozturik udaberri printzetan **lurmendurik** ur-xirripa batean ernetzen den erreasto koxkor jostalariaren gisa, ni ere gizentzen eta gihartzen joango naizelakoan nago, hemengo bakea eta Jainkoaren nahia lagun. Jakina da gure jaunak beti ere proba are gogorragoak ipin diezazkigukeela bide erdian **behaztoparri**, eta datorrena datorrela gogo onez eta esker betez onartu beharra dugu, baina zinez nahi, espero eta uste osoa dut, nire berrogei egun eta gau pasatxoko nekealdia amaitu zela, eta **basamortu** latza atzean utzi. Jaungoikoaren baratza oraindik ikusterik ez badugu ere. Hori ere iritsiko ahal dugu!

Tira, honezkero sumatzen zaitut **irri-murritxez**, hasi-masien bihurguneetan trabatu eta ia galdu ere egin naizelakoan. Ez zaizu arrazoirik falta. Ondoegei ezagutzen nauzu eta badakizu lumaren joanean askatzen dela

BEKATUAREN ITZALA

4 Aspaldiko! Bekatuaren itzala mundu honetako azken bazter-zokoraino iristen den bezala, Jainkoaren graziak ere bere **errainu** zuri-argiaz argitzen dizkigu ilungune eta kezka-arrastoak oro. Halatsu, aspaldi honetako nire nekealdi etenik gabe honetan atsedentleku eta poz-emaile zatokit zu, adiskide on hori, eta orain arteko **atsekabeak** behingo batez iragandako aldi bihurtu diren esperantza ernetzen didazu.

Ez nauzu nire guruzbide **hitsaren** berri ematen hasiko ordea, ondo asko ezagutzen baituzu lehenaz gainera. **Aitzitik**, zure berri jakin nahiko nuke: zer

moduz zaude? Osasun aldetik eta ondo, espero dut, beti izan zara-eta **sasoiko gizona**, zer esanik ez nire gorputzaldi sarri **txepelen aldean**. Eta horko giroa? Bagabiltza ala? Sumatzen dut, kili-kolo esango didazuna, zuri-beltzak baino gehiago, ñabarrak izan ohi baitira gure kontuak, eta zu ere beti, ni baino hotzago, **zuhurrago**, inguruaz zirt edo zart epairik emateko. Epela zinela **egotzi** izan nizan inoiz, eta barkazioa eskatzen dizut, gure jaunak ere ez epaitzeko agindu baitzigun, gu ere epai ez gaitzaten; ni ere, zakurra makilka apaldu ohi den bezala umildu nau eskarmentuak.

Utz ditzagun atzean bada, minak eta saminak. Jo dezadan ahaztutzat neguaren beltza,

ERRAINU.- Izpia. Rayo, reflejo.
ATSEKABE.- Nahigabea. Dolor.
HITS.- Iluna, goibela.
AITZITIK.- Al contrario.
SASOIKO GIZON.- Gizon osasuntsua, indartsua.
TXEPEL.- Ahula, gaisotia.
ALDEAN.- Ondoan. En comparación de.

ZUHUR.- Zentzuduna, burutsua. Prudente.
EGOTZI.- Leporatu. Atribuir.
LAIOZ.- Ospela. Sombrio.
LURMENDU.- Elurra urtu. Derretir la nieve.
BEHAZTOPARRI.- Piedra de tropiezo.
BASAMORTU.- Eremua, desertua.

IRRI-MURRITX.- Barremurri txikia. Sonrisita.
BARRADERA.- Presa, dique.
ASASKATU.- Lasaitu, baretu. Desahogarse, tranquilizarse.
GIZALEGE.- Jarrera, portaera. Comportamiento.
AZTURA.- Ohitura. Costumbre.

nire kezken **barradera**, hor **asaskatzen** eta baretzen dela nire barrena. Egia da ez dizudala oraindik argitu zertan den nire hemengo bizimodua, baina azalpen xeheagoa eta denbora gehixeago beharko dut horretarako: oraintsu egin dut iristea eta nire puska guztiak zein bere tokian ipini gabe ari natzaizu idazten.

Hala ere, ez izan beldurrik, berandu gabe zehaztuko baitizut hemengo toki eta jendeen berri. Bienbitartean, ez ahaztu ni ere zureak jasotzeko gogo biziz nauzula.

Laster arte, zure betiko laguna,

Adiskide hori:

Agindu bēzala, banatorkizu berriz ere, oraingoan **gizalegeak** eta ohitura onak agintzen duen bezalako eskutitza idazteko asmotan gainera, basapiztien artean bizi izanak ez bailuke inola ere kristau onaren **azturak** ahazteko aitzakia izan behar, eta bai ordean haietan tinko bermatzeko akuilu, besteren irakasbide izateko bihotz-altxagarri.

Herri txikia duzu hau, eta honekin neurri handi batean dena esana dizudala pentsa zenezake, herri txiki guztiek on-gaitz bertsuak izaten baitituzte, **aje** eta dohainetan elkarren antzeko dituzu, halako batetik atera eta besteren batera iritsi den edonork bake handirik gabe aitortuko dizun legez. Artzainak ordea, ardiak ezagutu ahala, kalekumearentzat berdinak direnak bereizten ikasi behar du, eta guk ere, halaber, berdintsu sumatzen ditugun herrien artean ere gorabeherak, **malkarrak** eta **koskak** banaro ezagutu behar, gure **hazpegiak** balira bezala. Ez naiz horrenbestera iritsi oraindik, badakizu ailegatu berri naizena, eta bertakoek harrera ona eta **txera** goxoak egin badizkidate ere, euren bihotzak zabaltzerako denbora beharko dute. Ia-ia esan liteke, eta badakit zuk

behintzat ez didazula **erkaketa** hau txartzat hartuko, zure irri gaixto hori egiteko eskubidea baduzun arren noski, esan litekeela diot, **aldeak alde**, bi maitaleren arteko hartu-emanen antzekoa dela gure hau. Aurrena begiz jo, aurpegi garbia elkarri ezagutu, **soin-atalen higidurei** erreparatu, **solas** alferretan luzatu, batak bestearen isilaldiak konprenitu, maitatu, eta gero hasiko dira elkar biluzten, azkenean gorputz eta arima bat egiteko. Bai, badakit zer esango didazun, askok eta askok, gero eta gehiagok, presaka eta korrika azkenera jotzen dutela, bitarteko bidetxiorretan aspertu gabe. Baliteke, bai, baina horrexetarako gaude gu, okerrak eta makurrak bide zuzenera ekartzeko. Eta, nolana ere, honek ez du ezertan alferrikaltzen nik erakutsi nahi nizun arrazoibidea, alegia, herriak eta guk, puxkanaka egin behar dugula aurrera, biok bat egin arte, **tamalez** sarri askotan egin ahalak, egin arren bide erdian geratu ohi garen arren. Baina oroipen txarrak belar gaiztoak bezala surtara botatzera deliberatuta nago, bizimodu berri bati ekiteko.

Etsetxo polit bat da hemengoa, **egutera**, elizaren ondo-ondokoa. **Zurajea** eta **altzariak** zaharrak, eta, harritzekoa ez denez, han eta hemen **pipiak** janak. Luze geratzen banaiz, eta halaxe izango delakoan nago, iritsiko zait berritu on bat emateko parada eta unea. Oraingo, garbitu-pasada ederra eman diogu.

«Eman diogu» esan berri dut, eta «gu» hori nor garen jakin nahiko duzu. Nik ez dut, zuk bezala, arrebaren etxean izateko **zoririk**. Ama zena izan nuen ondoan Jainkoak bere **altzora** eraman zuen arte, orain urte batzuk, gogoratuko duzunez. Hemen bada, serora nor hartuko ibili beharko ote nuen ari nintzen **nire artean** pentsatzen, lehengo **erretorearekin** egondakoa hiri berria zela-eta. Hori baino kezka-iturri handiagoak ere banituen, egia esan, eta ez nuen horrekin buru-hauste gehiegi ere

erabili, baina hara non, uste baino errazago aurkitu nuen aukerako emakumea: alarguna bera, zintzoa, **maratza**, txukuna eta langilea; ez prexiko nik diodalako - bai baitirudi ferian ari naizela, tratante moduan, **mando** zaharra garesti saldu nahian-, **ezpada** herriko agintariek eta jende **prestuenak** halaxe ziurtatu didatelako, bestelakorik esan didanik ere baden arren, baina badakizu nolakoa izan ohi den herri txikietako giroa, harako «herri txikia, infernu handia» asmatu zuenak ere bazekien zertaz ari zen: inbidiak eta **bekaitzak**, gorrotoak eta ezinikusiak **sendirik** zintzoenetan ere egiten dute beren habia, askotan zergatik den ere jakin gabe, ez zuk ez beraiek, elkarrenganako **seta** gaizto horiek itsu-itsu eta berez **belaunaldi** igaroko balira bezala. Kontuak kontu, niri ere behar bezalako emakumea iruditu zait, **elizkoia** gainera, eta bide batez behar gorrian geratutako familia kristau bati ogibidea eta aurrerapidea eskaintzeko modua izan dut honela, ez baita andre alarguna bakarrik, alaba ere badu, neska koxkorra; eskola ez du bukatu zaharra izango, eta premia larria gertatuz gero neskame joateko ere **gupidarik** ez, baina pena galanta izango litzateke gero, aita galdu duen familia batean, elkarren beharra eta batak bestea kontsolatzekoa inoiz baino handiago direnean, juxtu orduan neska gaztea amagandik **bereizi** beharra, sendi horren hondarrak betiko apurtuta eta **sakabanatuta** uzteko; horixe baitzuzurteek eman diguten irakaspenik behinena, sendi batua eta maitasunean hazia dela fedearen **txingarra**; hortxe, sukalde txokoa, sortzen eta sendotzen dira **lagun-hurkoaganako** errespetua eta elizarako **jaiera**, **laratzean** sua bezala.

Ikusten duzu, nire lagun ona, **hauspo** behar handirik gabea dela nire berrikerarako gar gau ere. Erre eta kiskali ez baina arrats behean epel eta goxagarri izango zaizulakoan, gogoan izan nik ere **pozarren** jasoko ditudala horkoak.

Agur bero batez.

AJE.- Hutsa. Fallo.
MALKAR.- Aldapa, aldatza. Cuesta.
KOSKA.- Desnivel.
HAZPEGIAK.- Facciones faciales.
TXERA.- Abegia, ongiatorria. Acogida.
ERKAKETA.- Erka(tu)+keta. Alderaketa. Comparación.
ALDEAK ALDE.- Aldeak aparte. Dejando a un lado las

diferencias.
SOIN-ATAL.- Gorputz-atal. Parte del cuerpo.
HIGIDURA.- Mugimendua. Movimiento.
SOLAS.- Hizketa, jarduna. Charla.
TAMALEZ.- Zorigaitzez. Desgraciadamente.
EGUTERA.- Ekiadler dagoena. Mirando al oriente.
ZURAJE.- Maderamen.


ALTZARI.- Errediza. Mueble.
PIPI.- Sitsa. Carcoma, polilla.
ZORI.- Zortea. Suerte.
ALTZO.- Magala. Regazo.
NIRE ARTEAN.- Nire baitan, nirekiko. Para mis adentros.
ERRETORE.- Párroco, rector.
MARATZ.- Langilea. Diligente.
MANDO.- Mulo.
EZPADA.- Sino que.
PRESTU.- Handikia.

JON ARRETXE

HAKUNA MATATA (Branka)

Jon Arretxe Perez Basaurin jaio zen 1963an. Euskal Filologian lizentziatu zen. Deustuko Unibertsitatean eta Doktoretza ere lortu du Basauriko euskarari buruzko tesi batekin. Hau dena deigarriago egiten da kontuan izanda euskara **bere kasa** ikasi zuela, ez etxean, ez eskolan.

Zenbait urtetan euskarazko irakasle izan ostean berriz ere ikasle-bizimodura itzuli zen, Soin Hezkuntzako Euskal Erakundean. Hainbat kirolatan aritua eta **aditua** da, baina kirolari baino gehiago bidaiari eta abenturazalea dela esan genezake: munduko lau bazterrak ibili ditu eta bere **txangoetan** oinarrituta liburu batzuk idatzi ere bai: *Hakuna Matata* honez gain, Sahara bizikletaz zeharkatu zueneko *Tubabu*, argitaratzeko bidean dagoen *Urrezko triangelua* (Tailandiako abenturekin), eta badiu beste batzuk prestatze bidean, Brasilgo **oihaneko** eta Txinako esperientzietan oinarrituta. *Hakuna Matata* bizkaieraz atera zen, eta orain batuaz aterako du ELKAREk Durangoko Liburu eta Disko Azokarako.



PEI-PEI

4 Trenak **galgatzean** egin zuen zaratak **iratzarri** egin ninduen bat-batean bazkalosteko lo-kuluskatik. Nire goiko literatik jaitsi eta leihotik begira zegoen Wu-Chun-Lin-i Shanghai-ra ailegatzeko zenbat falta zen **itaundu** nion. Hiru bat ordu, erantzun zidan bere ingeles pobrean.

Bidaia *Litera gogor*rean egitea ideia ona izan zen. *Litera biguna* garestiegia zen, eta **Jezarleku gogorra lar** deserosoa halako bide luzea egiteko. Sei litera zeuden gelatxo bakoitzean. Inongo ate edo mugarik ez zeukaten, ez euren artean ez pasabidearekin. Horrek jendearekiko harremanak errazten zituen eta giro polita zegoen gure artean.

Beijing-etiko bidaia luze hark eramandako hogeit bat orduetatik batzuk beheko literetan edo pasabideko jarleku txikietan jezarrita eman genituen berriketan edo elkarrekin komunikatzeko ahaleginetan, behintzat. Gehienbat Wu-Chun-Lin-ekin mintzatzen nintzen, ingelesez zeozer zekien bakarra bera zen eta; baina bere alabatxoa eta batez ere ondoko **agure bi** oso interesatuta zeuden nire bizitzan, eta lagunaren itzulpenen bidez behin eta berriz galdetzen zidaten nongoa nintzen, zenbat urte neukan, ezkondata nengoen, zergatik nenbilen bakarrik, nire **ogibidea** zein zen... **Panpina** baten modukoa zen umeak, bestalde, behin konfidantza hartuz gero, nire **albora**

etorri, altzoan jarri eta bere atzamartxoekin aurpegiko, bularreko eta hanketako bizarretatik tira egiten zidan. Gero bere aitaren azal fin soila laztantzen zuen, desberdintasun nabarmena adierazi nahian bezala. Zenbakiak txineraz behin eta berriro esaten eta errepikarazten zizkidan, bere aitak, agure antioju biribildunak eta **haginbako burusoilak irribarre** egiten zuten bitartean. Nire izena, txineraz, Yua-Ha zela esan zidaten.

Tren-geltokian geratu eta berehala kanpoko umeak gure leihoetara **arineketan** hurreratzen hasi ziren, **otzaretan** zeuzkaten lau arrautzadun poltsak, sagarrak eta beste jaki eta edari batzuk eskainiz.

BEKAITZA.- Inbidia.

SENDI.- Familia.

SETA.- Tema, burugogorkeria. Terquedad.

BELAUNALDI.- Generación.

ELIZKOI.- Eliztarra. Devoto/o.

GUPIDA.- Beldurra. Temor.

BEREIZI.- Banatu, apartatu. Separar.

SAKABANATU.- Barreiatu. Dispersar.

BEHIN.- Nagusia, garrantzitsua.

TXINGAR.- Brasa, ascua.

LAGUN-HURKO.- Próximo.

JAIERA.- Eraspenna. Devoción.

LARATZ.- Su bajuetako katea. Llar, cadena de la chimenea.

HAUSPO.- Fuelle.

POZARREN.- Atsegin handiz. De mil amores.

BERE KASA.- Bere kontura. Por su cuenta.

ADITU.- Jakituna. Entendido,

experto.

TXANGO.- Bidaia. Viaje.

OIHAN.- Basoa. Selva, bosque.

GALGATU.- Balaztatu. Frenar.

IRATZARRI.- Esnatu. Despertar.

ITAUNDU.- Galdegin. Preguntar.

JEZARLEKU.- Eserlekua. Asiento.

LAR.- Oso. Muy.

AGURE BI.- Bi agure, bi gizon zahar.

OGIBIDE.- Lanbidea, ofizioa.

PANPINA.- Muñeca.

ALBO.- Aldamena. Lado, vera.

Ordurako osteraren gogotuta nengoen, aurretik jandako arroz egosia, haragi zati eta beste osagarri desatseginago batzuekin hornitua, **dastatu** ondoren. Horregatik arrautzak hartu nituen yuaren baten truke. Wu-Chun-Lin-ek, fisika irakasle ei zenak, ea New York-en halako lau arrautzak zenbat balio zuten itaundu zidan, eta nik ez nekiela, New York Europatik, nire herritik, urrun samar zegoela, baina garestiagoak izango zirela erantzun nion. Ez ziruditen lar konforme geratu zenik eta handik pixka batera berriz ea New York-etik Txinarako hegazkinak zenbat balio zuen galdetu zidan.

Arrautzak jan ostean agure antiojudunak mahatsa eskaini zidan. Apur batean dudatu ondoren onartu egin nuen eta oso pozik paratu zen. Burua makurtuz «xie-xie» esan nion eta **elastiko** hutsean zegoen beste agureak barre algara jatorra egin zuen, begitartea **zimurtuz** eta geratzen zitzaion hagin parearen erakutsiz.

Bero zegoen han, treneko termometroak hogeita hamar gradutik gora markatzen zuen. Gainera han denek **erretzen** zuten, osasunerako ona zelakoan, eta ondorioz giroa nahiko kutsatuta zegoen. **Hondakin** guztiak leihotik botatzen zituzten, nik agian arrazoirik gabeko

txukuntasunagatik poltsatxo batean gordetzen banituen ere. Ez zeukaten inolako lotsarik sekulako **ahopats** zaratatsuak eta **txua** botatzeko. Ez zidan ardura, aste batzuk neramatzan Txinan zehar ibiltzen eta ohituta nengoen ordurako.

Nire egunkarian lerro batzuk idazteko une aproposa zela pentsatu nuen. Kuadernoa eta boligrafoa hartu eta leihoko ondoko jarleku txikian paratu nintzen nire bidaiakideen harridurazko begiradapean. Berehalako batean pilatu zitzaizkidan buruan Txinan zehar ordura arte izandako esperientziak. Beijing aldean pentsatu nuen gehienbat, Beijing zoragarrian. **Harresi** Handia gogoratu zitzaidan: **jendetza** izugarria berriztatutako zati laburrean eta bakardade infinitoa gainerako guztian. Txinatarrek harro-harro esaten zidaten ilargitiki ikus daitekeen monumentu bakarra dela. Era berean, Tiananmen enparantza munduko handiena zela esaten zuten. Udako Jauregiaren bakeaz ere oroitu nintzen, Hiri Debekatuaren edertasun magikoaz, Zeruko Tenpluaren perfektioaz... Bitxi gehiegi hiri bakar batentzat.

Baina hura dena igarota zegoen eta ordurako hartan biztanletan Txinako handiena zen Shanghairantz nindoan, Shanghai **mendebaldeturantz**,

Shanghai moderno eta industrialerantz. Ez nuen gauza handirik espero beragandik. Egia esan, ez nekien ezta hiri hura bisitatzeko zergatik aukeratu nuen ere. Agian bidaiarientzat ohizko bisitalekua zelako, edo agian halakoetan, gutxien espero denean, sarritan **ustekabe** atseginen bat sortzen delako. Herriaren izenak berak zerbait berezia, **erakargarria** zeukan, eta ezin nion uko egin hark nigan sortzen zuen **jakinminari**.

Trenaren berezko mugimenduan halako pentsamenduetan **murgildurik**, gero eta filosofikoago bihurtzen ari zen letra zirriborratuen jarduna eten egin zidaten neska batzuen ahotsek. Garbitzaileak ziren eta han jazarrita traban nengoen. Beraz, altxatu eta alde egin behar izan nuen. Gutxi falta zen Shanghai-ra ailegatzeko.

HAGINBAKO.- Hortzik gabekoa.
BURUSOIL.- Calvo.

ARINEKETAN.- Presaka, korrika, azkar.

OTZARE.- Otarrea, Cesto.

DASTATU.- Probatu, Degustar.

ELASTIKO.- Camiseta.

ZIMURTU.- Arrugar.

ERRE.- Fumar.

HONDAKIN.- Zaborra, zakarra. Basura.

AHOPATS.- Korrokada. Eructo.

TXU.- Txistua, tua. Saliva.

HARRESI.- Murrua, Muralla.

JENDETZA.- Jende+tza. Jende asko. Multitud. Era berean: dirutza, harritza...

MENDEBALDEU.- Mendebalde+tu. Occidentalizarse.

USTEKABE.- Ezustea. Sorpresa.

ERAKARGARRI.- Atrayente.

JAKINMIN.- Jakingura, jakinnahia. Curiosidad.

MURGILDU.- Barneratu. Sumergir.

BLUR

The Great Scape
2.900 pta.

3 Oraindik ere gogoan dut, hemen HABEn diskoen gaineko *kritikak* egiten hasi ginenean, nik **goraipatutako** lehen borobila britainiar hauen aurreko lana izan zela *Parklife* klasiko hura, eta kasu honetan *klasiko*, ez Matusalenen garaikoa delako, baizik eta lan batzuk egitearekin batera klasiko **bihurtzen** direlako. Orain *Blur* taldearen laugarren diskoa entzuteko aukera izan dugu. Bueno, ondo. Gaizki ez dago. Ez da txarra. Baina... aurreko grabazioak halako **itzala** egiten du, parean ez daudenak ere estali egiten baititu. Itzal horrek ez digu lan berri honen koloreak ikusten uzten. Eta hori ez da *Blur* taldearen **errua**, eta gurea ere ez. Baina denok ordaintzen dugu erru hori. Tira... filosofaldi honetan jarraituz gero, azkenean konklusio batetara iritsiko ginateke: *Blur* taldekoek, disko berri hau *ona bakarrik* egiteaz ez dutela hanka sartu, aurrekoa hain ona egitea izan zela hanka sartzea. Eta, pop-rock musikaz ez da horrenbeste pentsatu behar.

RUPER ORDORIKA

So' Ik' So
2.800 pta.

3 Oñati, Gipuzkoako lurretan egon arren, Arabako hiriburutik gertuago dagoen Unibertsitate giroko herria da. EEBBtzat Boston dena, Euskal Herriarentzat Oñati dela esango genuke. Bostondik New Yorkera ez dago bide handirik, eta nik ez dakit, horretan ere **parekotasunik** izan nahian edo... Oñatitik ere, **dirudienez**, ez dago sekulako saltorik. Bestela galde diezaiozela *Ruper*, ez ilezain baizik eta patila-luze, *Ordorikari*. Lehen diskoa kaleratu zuenetik parekatu izan dute *Lou Reedekin*. Nik uste honek berari ez ziola inolako graziaz egingo, baina, tira, berak esaten duenez, bere bostgarren disko honen azalean *Velvet* kolorea da nagusi. Kolore hori ez omen dago errealitatean, baina nonbait ba omen dago. Kasua da!! Oñati bezala. Diskoa, bi belarriak eduki eta erabiltzen dituztenentzat bakarrik.

Joseina Etxeberria

Gomendioak


OASIS
Morning Glory

ZENBAIT
Help

MIKE SCOTT
Bring'em all in

MANOLO TENA
Las Mentiras del Viento

ZENBAIT
Desperado S.B.O.



MADREDEUS

Ainda

3 Win Wenders zinegileak, «Lisbon Story» filmean lanean hasi baino lehenagotik ezagutzen zuen *Madredeustalde* lisboarraren musika. Horregatik **jo** zuen Teresa Salgueiroren taldearengana, Lisboan egindako eta Lisboari buruzko filmea **borobillzeko**. Baina zuzenean entzun zienean, aurrez aurre ikusi zituenean erabat **txundituta** geratu zen. Hura zen Lisboa, musika horrek **islatzen** zuen berak kontatu nahi zuena. Horrela, *Madredeustaldekoek* bederatzi abesti hauek aurkeztu zitziotenean, egokienak haie txek zirela erabaki zuen Wendersek. Eta *Madredeus* musika-taldea bera filmean sartu zuen. Horren guztiaren **emaitza** da eskuartearen dugun diskoa. Lisboako kaleak, jendea, animak ikus ditzakegu talde portugaldar honek duen goxotasunaren bitartez. Herri-musikaren alorrean **kokatu** nahi izan dute beti *Madredeuseko* keuren musika. Fadoan eta herriaren istorioetan oinarritutako kantuen entzungo dituzue hemen, ikutu klasikoarekin eta sei musikari bikainek eskainita.

MOZART

FORTEPIANO ETA BIBOLIN SONATAK
K379, K380, K526
Sigiswald Kuijken, bibolina
Luc Devos, fortepianoa
ACCENT ACC 9175D DDD

3 Salzburgoko maisuak, Vienara iritsi zen urtean, 1781ean, idatzi zituen grabazio honetako lehen bi sonatak. Hirugarrena, berriz, 1787an egin zuen, «Don Giovanni» operarekin lanean ari zenean. Bibolina eta fortepianoa, elkartuta, ditugu hiru lan hauetan. Ez dira lan zailak, baina bi instrumentu hauek, egokitazunez eta dotoreziaz jotzen dituztenean gauza **xeheen** handitasuna erakusten digute. Kuijkenen bibolinak eta Devosen fortepianoak elkar laguntzen dute, kolore guztiak ateratzen dizkiote musikari, Mozarten hiru sonata hauei. Horregatik, edozein egoeratan gustora entzungo duzue konpakto hau.

Marijo Oria

GORAIPTU.- Goratu, goretsi, txalotu.
BIHURTU.- Bilakatu. Convertir.
ITZAL.- Gerizpea. Sombra.
ERRU.- Kulpa.
PAIREKOTASUN.- Berdintasuna. Igualdad.

DIRUDIENEZ.- Antza denez, nonbait. Al parecer.
JO.- Acudir.
BOROBILDU.- Biribildu. Redondear.
TXUNDITU.- Harritu, zurtu. Asombrar.
ISLATU.- Errainutu. Reflejar.
EMAITZA.- Emaria, ondorena. Fruto, resultado.
KOKATU.- Ubicar.
XEHE.- Umila, apala. Sencillo.

OVNIAK:
MISTERIO ALA
ERREALITATE?



OVNIAK: MISTERIO ALA ERREALITATE?

Gaiak, 78 orr., 1.100 pta.

3 Aurtengo udan nahikoa **zalaparta** izan da **ustezko** extralurtar baten irudiekin. Komunikabide guztietan izan da albiste Lurrez kanpoko **izaki** horri egindako autopsia. Baina, beharbada, telebistako irudiak izan dira jendea gehien **aztoratu** dutenak. Gezurrezkoak ote diren, benetakoak. Nahikoa saltsa sortu dute **bazterretan**! Nolanahi ere, **puri-purian jarri** dute berriro ere OVNIen gaia, euskaraz esateko, OHEn gaia. Eta Euskal Herrian ere izan omen dira OHE direlako horiek, Nafarroako Bardeetan hain zuzen. Batzuek itsu-itsuan sinisten dute, beste batzuek, ordea, ezta inolaz ere, dena gezurra dela. Gezur asko esan direla ez dago ukatzerik. Batzuetan izarrak ziren OHE horiek, beste batzuetan **auskalo** zer. Liburua bukatutakoan, ez dakigu **sinesberago** egingo zaren ala ez, baina behintzat zerbait ikasiko duzu, bide batez: gure galaxiaren egitura, izar bat zer den, irati-teleskopioak zer diren eta abar. Eta OHE bat zer ez den ere ikasiko duzu.



DIAMANTEAREN PLAZA

Merce Rodoreda
Elkar, 260 orr., 1450 pta

3 Aurreko ale batean, 250. zenbakian hain zuzen, emakume baten **aipua** egiten nuen. Mariasun Landa idazlearena,

bera zela gurean idazlerik itzulienetako bat. Orain beste batekin gatoz, Bartzelonako Mercé Rodoredarekin. Lehendik ere ekarri du Elkar argitaletxeak gure hizkuntzara idazle hau. Baina Mercé Rodoreda *Diamantearen Plaza* liburuagatik da ezaguna batez ere. Pelikulak ere egin dira liburu honi buruz, katalunieraz bai behintzat, eta liburu bera hogeitaka hizkuntzataraz itzuli dute. Kataluniako literaturaren **gailurrean** dago liburu hau, dudarik gabe. Emakume bat da protagonista, giro latz batean **emakumeizen** ari den neska gazte bat, hobeto esanda. Eta liburua 1960an argitaratu bazen ere, liburu on guztiekin gertatzen den bezala, ez du gaurkotasunik galdu, gizaki guztioi interesatzen zaizkigun gaiak ikutzen baititu Rodoredak bere **behaketa**-ahalmen izugarriarekin.



OT AZTIA

Picanyol
Pirene Editorial-Elkar, 24 orr. 750 pta.

3 Ot Aztia bildumako bostgarren alea da hau. Pirata gaizto batzuen bila dabil oraingoan bere laguntxoekin. Baina istorioak garrantzia baldin badu, are gehiago marrazkiek. Imaginazioa **soberan** dute marrazkilariek. Marrazki guztietan dago umore-punturen bat. Eta hizkeran, berriz, bada aitatzeko gauzarik: esaldiak binaka daude antolatuta. Eta esaldiaren bukaeran oinak daude: bertsolaritzan errimak osatzeko erabiltzen diren hitzak dira oinak. Batzuetan ez dira errima oso aberatsak, baina tira! Umetxoak hitz-jolasetara ohitzeko, balekoak dira.

Ale honen aurretik bilduma honetan ateratako beste liburuak, hauexek: *Trineoan*, *Ibilaldia*, *Aztiaren etxea*, eta *Safari*.



HITZAK JOSTAILU

Joxantonio Ormazabal
Elkar, 92 orr., 720 pta.

3 Izenburuak argi adierazten du liburu hau zer den: hitz-jolasa. Onomatopeiak ugari dira, bertoak ere badaude, trikitirako kantu **aproposak** ere bai, esaera zaharrak, **igarkizunak**, metaforak hitzen definizio bihurtuak, akrostikoak eta abar.

Marrazkiei erreparatuta, badirudi liburu hau haurrentzako egina dela —portzierto, portada asko gustatu zait—. Baina nik beti esaten dut hitz-jokoak egiteko, edozein hizkuntzatan, hizkuntza menderatu egin behar dela. Edozein **ez da gauza** hitzekin jolasteko. Jolasteko, beharbada bai, baina hitz-jolasak sortzeko, ez. Eta hitz-jolasaren bidez, dibertitzeaz aparte —hori baita garrantzizkoena— hizkuntza ikasi egiten dela, eta hizkuntza maitatzen. Hitz-jolasekin bada arrisku bat, onomatopeietan batez ere. Beste hizkuntza batekoak hartzea euskarazkoak **bailiran**. Hori komikietan ikusten da sarritan. Baina Joxantonio Ormazabalen liburuarekin ez da hori gertatzen. Beraz, nik uste liburu hau edozeinentzat dela egokia.

Bukatzeko, bi gauzatxo. Bat: liburu hitzekin jolasten **trebea** zen Joxe Mari Goikoetxea zenari dagoela eskainia, eta bi, bitxikeria bat: euskal usuarioan, eguzkia ia beti amandrea da, eta ilargia ere amandrea. Beharbada hori ere irakatsi egin beharko litzateke. 25. orriko marrazkiarengatik diot hori.

Jon Zabalegi

ZALAPARTA.- Zarata. Ruido.
USTEZKO.- Supuesto.
IZAKI.- Ser.
AZTORATU.- Asaldatu, artegatu. Turbar.
BAZTER.- Lekua, tokia. Lugar.
PURI-PURIAN JARRI.- Poner de moda, de actualidad.
AUSKALO.- Batek daki. Véte a saber.

SINESBERA.- Sine(t)s(i)+bera. Crédulo. Era berean: izerbera, sentibera, egarbera...
AIPU.- Aipamena. Mención.
GAILUR.- Tontorra, erpina, goiena. Cumbre.
EMAKUMETU.- Emakume bihurtu. Hacerse mujer.
BEHAKETA.- Observación.
SOBERAN.- De sobra.

APROPOS.- Egokia. Adecuado.
IGARKIZUN.- Ikusi-makusia. Adivinanza.
GAUZA IZAN.- Gai edo kapaz izan. Ser capaz.
BAILIRAN.- Como si fueran.
TREBE.- Abila, iaioa. Hábil.

Orain 40 urte hil zen James Dean

3 Txinan esaten dute: kontuz ametsekin, agian bete egingo dira eta. Horixe gertatu zitzaion *James Byron Dean* gazteari 1955eko irailaren 30ean.



(Magnum Cinema liburutik hartu).

Azkar bizi nahi zuen, gazte hil, eta **gorpu** eder izan. Gorpu eder beharbada ez, baina azkar bizi eta gazte hiltzea, hori **lortu** zuen, 24 urterekin hil baitzen kotxe-istripu batean. Orduantxe sortu zen mitoa. Oraindik irauten du 40 urte geroago. Baina gaurko gazte askok ez dute ezagutzen.

James Dean 1931n sortu zen, Indianan. Bederatzi urte zituela ama hil zitzaion, eta Fairmount-era joan ziren bizitzera. UCLA Unibertsitatean **zuzenbide**-ikasketak eta antzerkia ikasi zituen. Baina UCLA txikiegia zen berarentzat, Hollywood-era joan nahi zuen. Elia Kazan-ek *The Inmoralist* antzezlanean ikusi zuenean, erabaki bat hartu zuen: James Dean izango zen «Al este del Edén» pelikulako Carl Tras.

Hiru pelikula

James Deaneke hiru pelikula egin zituen: «Al este del Edén»; «Gigante» eta «Rebelde sin causa». Zergatik, **beraz**, horrenbesteko arrakasta? **Antzezle** ona zelako? Horregatik bakarrik? Badirudi ezetz. Berrogeigarren hamarkadaren bukaeran EEBBetako **gazteria etsita bizi** zen *gerra hotzean murgilduta*, gazteak ez zeuden gustora beren gurasoekin, — hori **belaunaldi** guztietan gertatzen da— eta eredu behar zuten imitatzeko. Eta hiru pelikula horietan nor imitatu aurkituko dute. Eta ez EEBBetakoek bakarrik. **Lotsatia** zen, txikia, txintxo-aurpegia zuen, **zakarra** izaten ere bazekien, **zarpaila**, ehundoko **aldarteak** zituen, ez zuen helburu jakinik bizitzan, kotxeen abiada maite zuen, arriskua, ez zen batere **eraman erraza**, eta, gainera, gazterik hil zen. Itxaropen handiak sortzen ari zen antzezlea gazterik hili!


James eta Jack

Jack Simmons James Deaneke bizi izan zen bolada batean, **maitale** izan ziren. Marrazki-mordoa aurkitu dituzte Simmonsen etxean, Deaneke egindakoak. Eta marrazki horietan, Deaneke Simmonsi zion maitasuna ikusten da. Marrazki batean *Jack* izena azaltzen da, eta «k» hizkiaren gainean **zakil** bat, eta marrazki berean zera jartzen du «zutzaz pentsatzen ari naiz». Baina harreman horiek ezkutuan gorde zituen James Deaneke. Agerian ez zen gizon zale. Behin eta berriz garaiko aktorea **ospetsuenen aldamenean** ateratzen zuten argazkietan. Horrela indartzen zuten J. Deanen irudia Warner Bross **ekoizpen**-etxeak. Hala dio

Iñaki Estebanek artikulatu batean: «Warner-ek Pier Angeli aktorea polita aurkitu zuen. Warner-ek ekoiztutako *El cáliz de plata* pelikulan parte hartu berria zen neska. Elkarrekin gustatu, elkarrekin irten, eskutik helduta estreinaldi batzuetara joan... hori egin zuten, baina besterik ez».

J. Deaneke dirua ematen du

Iñaki Sarriugartek kontatzen duenez, jende askok egin du dirua James Deaneke kontura. Batzuek istripua izan zuen kotxearekin; **ilezain** batek J. Deaneke aurpegia zuten **burkoak** salduz...



Argazki hauek Magnum Cinema erakusketan egon dira zinemaren 100. urteurrena ospatzeko.

GORPU.- Hilotza. Cadáver.
LORTU.- Erdietsi. iritsi. Lograr.
ZUZENBIDE.- Derecho.
BERAZ.- Hortaz. Por tanto.
ANTEZLE.- Antzez(tu)+le. Actor. - LE atzizkiak egilea adierazten du.. Adibidez: erosle, idazle, ikusle...
GAZTERIA.- Gazteen multzoa. La juventud.
ETSITA BIZI.- Vivir con desesperanza.


MURGILDU.- Barneratu. Sumergir.
BELAUNALDI.- Generación.
LOTSATI.- Lotsa+ti. Herabea. Tímido. Era berean: negarti, izuti, kezkatu...
ZAKAR.- Aspero.
ZARPAIL.- Zarpatsua. Andrajoso.
ALDARTE.- Gorabehera. Cambio, altibajo.
ERAMAN ERRAZA.- Fácil de llevar.

MAITALE.- Amorantea. Amante.
ZAKIL.- Pene.
OSPETSU.- Ospe+tsu. Famatua, sona handikoa.
ALDAMEN.- Alboa, ondoa. Lado.
EKOIZPEN.- Ekoiz(tu)+pen. Producción.
ILEZAIN.- Barberoa. Peluquero/a.
BURKO.- Almohada.

ZINEMA ARGAZKITAN

Donostiako Zinemaldiaren bidetik etorri zaigu Magnum Cinema argazki-**erakusketa**. Zinemaldia aspalditxo bukatuta, urriaren erdira arte iraun du erakusketak San Telmo museoa. **Liburukote** bat ere atera dute, eta postal-mordoa. Argazki oso ezagunak, ia mitikoak —J. Dean N. Yorken paseatzen **kasu**— ikusi ditugu, baina baita bestelakoak ere, intimoagoak, errodian, atsedenaldir hartutakoak, edo kamerinoan, edo zuzendariaren etxean, edo kale zaratatsu batean... **Edonon**.


Magnum argazkilari-agentzia bat da, 1947an sortua. Pelikula asko estudioetan egin izan dira, eta egiten dira; estudio **erraldoiek** beren **iragarki-saila** dutenez, Magnum kanpoan **laga** dute. Baina, lasai, argazkietan azaltzen direnak badira nor zinean. Batzuk pantailaren aurrean ikusi ditugu, beste batzuk atzean zeuden, ezkutuan.



*Anna Magnani Erroman.
Argazkia: Philippe Halsman.*



*Eta Orson Wellesi Nicolas
Tikhomiroff-ek atera zion.*



*Alfred Hitchcock Eliot Erwitt-en
argazkian.*

ERAKUSKETA.- Eraku(t)s(i)+keta.-
Exposición.

LIBURUKOTE.- Liburu+kote. Liburu
handia, mardula.

KASU.- Adibidez, esate baterako.
Por caso.

EDONON.- Nonahi. En cualquier
parte.

ERRALDOI.- Enorme, gigante.

IRAGARKI-SAIL.- Sección de
publicidad.

LAGA.- Utzi. Dejar.



Pelikula eta antzezle handiak: Marlon Brando "La Ley del Silencio"n. Argazkia: Elliot Erwitt.



David Seymour argazkilariak 1952an atera zuen argazki hau: Ingrid Bergman bere bi alaba bikiakin.



Ezagun bihurtzen ari da Txinan Gong Li. Marc Riboud-en argazkia da.

(c). 1994. Cahiers de Cinéma. Argazkiak: Magnum Photos. Eta 1995ko ediziorako Donostiako Nazioarteko Zinemaldia.

IDAZLAN LEHIAKETA

KELLY-RI

2 Kaixo Kelly! Zelan Beberly Hillsen?

Nik hemen aste bete bakarrik daramat, baina itzultzeko gogo daukat. Espero dut nire aitak hemen dauzkan negozioak laster bukatzea.

Paraje hau «super aspergarria da». Ez dago gauza askorik egiteko; gainera beti, ia egunero, egiten du euria eta gutxitan ateratzen da eguzkia.

Oraindik ez daukat lagun askorik. Batzuetan nire aitaren lagun baten alabarekin joaten naiz. Nire urbanizazioan bizi da eta tenisean jokatzera etortzen da. Jai pribatu batzuetara ere joaten naiz, baina nire lagunak senargia dauka eta horregatik ezin naiz beti berarekin joan.

Esan nizun kurtsoa hasita zegoela ailegatu nintzela eta Unibertsitate hoberenetan ez zegoela plazarik. Orain, momentuz, Unibertsitate publikora joaten naiz. Zuk sinesten al duzu Unibertsitate publikoan? Nire klaseko adiskideak, nire **ikaskideak**, oso arraroak dira, beno; arraroak ez, desberdinak.

Batzuek arropa arraroak eramaten dituzte. Nik uste dut «hippi» edo horrelako zerbaiten irudia eman nahi dutela; nire **uste apalean**, **gizarajo** batzuk besterik ez dira.

Adibide bat: nire **mahaikide** batek beti eramaten ditu bota zikin zahar batzuk... eta «*pisamierdas*» izena jarri diote, imajina al dezakezu horrelakorik!

Klasera oinez edo autobusez etortzen dira gehienak, Nik hemen, ezin dut oraindik nire deskapotablea erabili euriagatik, eta aitak Golf bat erosi dit).

Klaseko gehienek ez dute espaineraz hitz egiten. Beren hizkuntza «*euskara*» dela esaten didate, eta nik uste dut «*vasque*» esan behar dutela, eta haiek ezetz, eta nik ez dakit zergatik deitzen den euskara.

Nik askotan ez dut ezertxo ere ulertzen, **benetan!**. Ez dut ulertzen zergatik «*vasque*» (edo *euskara* hobeto) ikasi nahi duten, eta ez dute ikasten, adibidez: ingelesa, oso hizkuntza erraza dena. Baina haiek esaten dute Euskal Herrian bizi direla, Espainiako iparraldean dagoen lurralde edo herrialde bat; zelako nahaste handia! Nik orain arte ez dut jakin Espainiako iparraldean beste herrialde bat zegoenik. Benoa, berdin da. Haiek bai, **jakin badakitela diote**.

Espero dut hemen denbora luzean ez egotea. Euskara oso zaila iruditzen zaidalako eta euskaltegira joan behar dudalako.

Hala ere, nik uste dut oso zoriontsuak direla, askotan kantatzen eta barre egiten daude eta.

Asteburuetan oso berandu arte iristen dira eta askotan etxera gosaltzeko bakarrik itzultzen dira. Haiek esaten dute *hori* «*Gaupasa*» egitea dela eta leku batzuetara joaten dira, niri **txerrikortak** iruditzen zaizkidanak, baina *chxosnak* edo *txoznak* deitzen omen dira. Bestetan *potez* joaten dira eta ez dakit zer edaten duten... a bai! kalimotxo edaten dute. Batzuei kirola egitea asko gustatzen zaie eta gehienei mendira joatea. Egun batean, esaterako, «*Gorbea*» izeneko mendirako **txangoa antolatu** dute. Nik nahiago dut Kandantxura eskiatzera joan. Kandantxu oso hurbil dago eta pista batzuk *superguai* daude, baina ez dakit zergatik, ez du inork joan nahi.

Azkenean, neu ere joan naiz Gorbeara. Ikaragarria! Mendia **basaz** beteta egon da eta etxera txerri bat eginda etorri naiz. Nire «*reeboock*»ak zikin-zikin ekarri ditut eta **zaramatara** bota behar izan ditut. Ikusi al duzu inoiz horrelakorik?

Nolanahi ere ezin naiz kexatu, gu desberdinak gara eta haiek, egia esateko, oso atseginak dira.



IKASKIDE.- Ikasteko laguna. Condiscípulo/a.

USTE.- Iritzia. Opinión.

APAL.- Umila. Humilde.

GIZARAJO.- Gizagaixoa. Pobre, desgraciado.

MAHAIKIDE.- Mahai+kide. Comensal.

BENETAN.- Egitan, zinetan. Verdaderamente.

JAKIN BADAHITE.- De que saben, saben.

DIOTE.- Esaten dute.

TXERRIKORTA.- Txerritokia. Cuadra de cerdos.

TXANGO.- Ibilaldia. Salida, paseo.

ANTOLATU.- Eratu. Organizar.

BASA.- Lokatza, lohia. Barro.

ZARAMA.- Hondakina, zakarra. Basura.

NOLANAHÍ ERE.- Edonola ere, dena dela. De todas formas.

Ba, ez dakit orain zer gehiago kontatu. «*Pais Vasque*» edo Euskal Herria ez dago hain txarto. Hala eta guztiz ere, nik Beberly Hillsera itzultzeko gogoa daukat: neure surf-**ohola** hartu, neure deskapotablean hondartzara...

Beno, agur eta **goraintziak** eman guztiei.

Egilea: Mirian Manso Lopez (2. maila)
Bilbo Zaharra Euskaltegia

P.D.: Kontatuko dizuet nola egiten den ditzosozko kalimotxo hori.



NIRE LAGUNARI!

3 Zergatik utzi nauzu hain bakarrik? Zergatik? Joan egin zinen agur esan gabe. Ni hemen utzita. Zure **beharra** dut. Zu gabe ezin naiz bizi. Orduoro gogoratzen naiz zutaz eta edozein momentutan ikusiko zaitudala uste dut eta hau **amesgaizto** bat besterik ez dela izan. Baita ere biok berriro elkarrekin egongo garela, eta nik neure amesgaizto hau kontatuko dizut eta zuk barre egingo duzu, tontoa naizela esanez. Non zaude? Zergatik ez zara agertzen? Itxaroten zaitut. Bakarrik utzi nauzu mundu honetan. Zure ahotsa entzun behar dut. Zurekin hitz egin behar dut. Ez ninduzula bakarrik utziko agindu zenidan, eta ez duzu hitza **bete**. Zergatik ez naiz zurekin joan, zergatik zu eta ez ni?

Gogoratzen duzu nola behin, gurasoen baimena lortuta, kontzertu batera joan nahi izan genuen eta ordu bete egon ginen autobusaren zain eta ez zen etorri. Gogoratzen duzu nola barre egiten genuen hori gogoratzen genuen bakoitzean? Zu eta ni ia-ia **izoztuta** hiriaren erdian eta autobusik ez? Gau ahaztezinazkoa hura, ezta?

Oroitzapen-piloa utzi didazu, eskerrik asko! Baina nik gehiago nahi nuen. Eskerrik asko ni aukeratzeagatik. Gauza asko eman didazu niri eta hainbeste jenderi ere bai. Hutsune handia utzi duzu gure artean, betezina den hutsunea. Joan zinenetik ez da denbora asko pasa, baina **emanen** du mendeak direla. Atzo zure argazki batzuei begira egon nintzen, eta ezin nuen ulertu: nire lagunik onena zara eta ez zaitut berriro ikusiko!

Hau guztia agur esateko idazten dizut, horretarako ere ez zenigun denborarik eman. Horrelakoa zinelako, gauza guztiak azkar egin nahi!

Zauden tokian zaudela, eta lanpeturik egonda ere, idatziezadazu, mesedez! Badakit egingo duzula.

Bitartean, txintxo ibili eta ez ahaztu gutaz, denok zure beharra dugu eta.

Zerura begiratzen dugunean **izar** bat bezala ikusten zaitugu...

Egilea: Iratxe Cirion (8.maila)
Bilbo Zaharra Euskaltegia.

OHOL.- Tabla.
GORAINTZIAK.- Eskumuinak. Recuerdos.

BEHAR.- Premia, beharrazana. Necesidad.
AMESGAIZTO.- Lokamutsa. Pesadilla.
BETE.- Cumplir.
IZOZTU.- Jela, hormatu. Helar.
EMAN.- Iruditu. Parecer.
ZAUDEN TOKIAN ZAUELA.- Estés donde estás.
IZAR.- Estrella.

3 1.- Hego Amerikan diktadore bitxiak izan dira, bai gure mendean eta bai aurrekoan ere. Batek bere alkandora fusilarazi zuen ezertaz fida ezin zitekeelako, besteak hiriburuko txakur guztiak hilarazi zituen haietako batek zaunka egin ziolako... Dena da giza odola ibaika isurazten zutela. Izan zen bat bere deitura ipini ziona urteko hilabete bati. Nor?

- A) José Gaspar Rodríguez de Francia, Paraguayko diktadore gorena (1814-1840)
- B) Mariano Melgarejo, Boliviako lehendakaria (1864-1870)
- C) Manuel Ortiz de Rosas, Argentinako lehendakaria (1829-1852)

2.- Santuen erlikiak betidanik izan dira **gurtuak** kristau erlijioan. Joan den mendearen erdian K. Lalanne-k orduan kontserbatzen zirenen inbentario bat egin zuen. **Emaitza** harrigarria gertatu zen. Esaterako, baziren San Andresen 5 gorputz oso, 6 buru toki desberdinetan eta 17 beso. Buru kontuan, San Julianek zuen marka absolutua: 26. Elizgizon estu batek, XVI. mendean, toki guztietan aurkitzen ziren Amabirjinarren esne-tantoen aurrean, Kristoren ama **menturaz** ez ote zen behiren bat izan idatzi zuen bere liburu batean (*Erliekei buruzko tratatua*). Nor zen hura?

- A) Martin Lutero (1483-1546)
- B) Loiolako Inazio santua (1564-1556)
- C) Jean Calvino (1509-1556)

3.- Euskal esaera zahar bat honela hasten da *Jende xaharrak ez ditu...* Zure ustez, nola amaitzen da?

- A) ... *gazteak dituen, osasuna eta bizitzeko gogoak.*
- B) ... *bere kopetako ximurak ikusten.*
- C) ... *gaztetan gastaturikoak*

4.- Ura badakigu zer tenperaturatan hasten den irakiten, baina zenbat gradutan hasten da erretzen **zura**?

- A) 150 °C
- B) 218 °C
- C) 350 °C

5.- Protokoloa oso kontuan hartzeko gauza denez (eta nork daki zeren beharra izango duen batek geroan), eman itzazu **hurrenkera** egokian ifernuko hiru izaki gorenak. («San Ziprianoren liburua» izeneko sorgin-liburuan enperadorea, printzea eta duke handia **ezizenez** hornituak direnak)

- A) Beltzebu, Luzifer, Astarot
- B) Luzifer, Beltzebu, Astarot
- C) Luzifer, Astarot, Beltzebu

6.- Nobel Sariaren historian behin bakarrik eman zaio literaturan bere obra osoa ezizenez sinatu duen idazle bati. Nor da idazle hori?

- A) Pablo Neruda
- B) Isaac Bashevis Singher
- C) Elias Canetti

7.- Zer adierazten du automobil-lasterketetan erabiltzen den bandera beltzak?

- A) Autoa *boxes* direlakoetan sartu beharra
- B) Auto guztiek gelditu beharra
- C) Kontuz ibili beharra, pistan olio dagoelako

8.- Bexamel saltsa, bai saltsa goxoa! Nongoa edo nork asmatua, ordea?

- A) Louis de Béchamel, Luis XIV.a erregearen sukaldariak 1700ean asmatu zuen.
- B) Frantzia iparraldeko Béchamel eskualdeko jaki tradizionala da.
- C) Beciamilla, Italiako Emilia-Romagna aldeko saltsa da, gero frantsesek beretua.

9.- & zeinua eta adierazteko erabili ohi da. K.a. 63. urtean Marco Julio Tirok erabili zuen lehen aldiz **esanahi** horrekin ezaguna den lehen sistema takigrafikoan. Baina zer izen du delako zeinu horrek?

- A) Adiuntaria
- B) Ampersand
- C) Emendatio

10.- Guardasola, euritakoa, aterkia: hiru izen eta izaki bakarra, eguzkitik zein eurtik babestekoa, ondo baliagarria eta edozein bazterretan ahaztua izateko joera duena. Noizkoa da eta non asmatu zen zure ustez?

- A) Txinarrak asmatu zuten duela 3.000 urte baino gehiago
- B) Erromatarren dotoreziaren fruitu da, Tiberioren garaikoa
- C) Espainian asmatu zen XVI. mendean.

11.- 1994. urtean gerra bat baino gehiago zegoen mundu zabalean: lehengo Jugoslabiakoa, etab. Izan ere, Hamburgoko unibertsitateak argitara eman duen **txostenaren** arabera, zenbat gerra zabal, hots, egiazko bi gudaroste buruz buru ari ziren zenbat **gatazka** zegoen munduan 1994an?

- A) 14
- B) 27
- C) 41

12.- Joana III.a Albretokoaren semea, Nafarroako (1572-1610) eta Frantziako (1589-1610) erregea izan zen. Katoliko bataiatu zuten, baina 6 urterekin protestante egin zen. Katolikoek San Bartolome gauean egin zuten **sarraskitilik** ihes egiteko katoliko **bihurtu** behar izan zuen. Laster, ordea, protestanteen buruzagitza hartu zuen bere gain, nahiz eta *-Merezi du, bai, Parisek meza bat, esanez -* berriro katoliko bihurtu zen Frantziako errege izateko. Errege aldakor hura katoliko fanatiko batek hil zuen. Norfaz ari gara?

- A) Nafarroako Enrike III.a eta Frantziako Enrike IV.a
- B) Nafarroako Luis II.a eta Frantziako Luis XIII.a
- C) Nafarroako Luis III.a eta Frantziako Luis XIV.a

13.- Orain dela urte batzuk, poligrafo izeneko tresna bat aski ezaguna izan zen Espainiako telebista katea baten zoriarekin saioa **zela bide**. Bai, ba, biktimen hitzetan egiak eta gezurrak **bereizten** zituen

GURTU.- Jauretsi. Venerar.

EMAITZA.- Ondorena. Resultado.

MENTURAZ.- Agian, beharbada. Tal vez.

ZUR.- Egurra. Madera.

HURRENKERA.- Segida. Sucesión.

EZIZEN.- Goitizena. Pseudónimo.

ESANAHI.- Adiera. Significado.

TXOSTEN.- Informe.

GATAZKA.- Liskarra, borroka.

SARRASKI.- Hondamendia, triskantza. Desastre, carnicería.

BIHURTU.- Bilakatu. Convertir.

ZELA BIDE.- Zela medio. Con motivo de.

BEREIZI.- Distinguir.

makina hura James Mackenzie kardiologo eskoziarrak asmatu zuen, baina noiz?

- A) 1890
- B) 1902
- C) 1935

14.- Zure begien aurrean *epistaxis* hitza azaltzen bada, axola gutxi zuri, ondo baino hobeki baitakizu *epistaxis* zera dela...

- A) Odola sudurretik jariatzea
- B) Obra luze baten laburpena, funtsezkoena biltzen duena
- C) **Hilobian** ezarri ohi den esaldia

15.- Rodrigo Borgia edo Borja valentziarrak zazpi seme-alaba agerikoen aita zen bere burua aitasantu izendarazi zuenean, kardinale **hautesleen** artean diru eta karguak banatu ondoren. Ustelkeri, bortxakeri eta gaiztakeri mota ia guztiak nagusi izan ziren Errenazimenduko printze haren aitasantutzaren aldia (1492-1503). Hain zuzen ere nor izan zen aitasantu hori?

- A) Alejandro VI.a
- B) Inozentzio III.a
- C) Julio II.a

16.- X **izpiak** garrantzitsuak dira medikuntzaren historian. 1895ean aurkituak, haiak erabilera menderatu arte ehundaka pertsonak -fisiko, mediku, **erizain** eta laguntzaileen artean- eman zuen bizia praktikaren ondorioz. Haietako 359ren izenak oroitarazten ditu Hamburgon **eraikitako** monumentu batek. Hain zuzen ere, nor izan zen X izpien asmatzailea?

- A) Ernest Rutherford (1871-1937)
- B) Wilhelm Conrad Röntgen (1845-1923)
- C) Pierre Curie (1859-1906)

17.- Paris, ezaguna denez, «Ville Lumière» deitzen dute. Argiaren hiria edo. Zergatik?

- A) XX. mendeko lehen urte dirdiratsu haietan asmatutako leloa da, amodiorik eroena milaka sutan erre zitekeen hiriaren ohoretan.
- B) Parisen latinezko izen zaharretik **bide dator**: Lutetia, Lux, hots, argiarekin zerikusia duena.
- C) XVI. eta XVII. mendeetan Paris **gaizkile**-habia zen. Haiei kontra egiteko etxe guztietan kandela bat pizteko aginduak eman zituzten agintariek eta, ondorioz, Paris ilun hura Ville Lumière bilakatu zen.

18.- Santu handi batek Jainkoaren existentzia frogatzeko «lehen kausarena» deituriko argudioa azaldu ondoren, entzuleetako batek galdetu omen zion ea zer egiten zuen Jainkoak mundua sortu aurretik. «Ifernua sortzen ari zen halako galderak egiten dituztenentzat», santuaren erantzuna. Nor zen santu hura?

- A) San Pablo.
- B) San Agustin.
- C) Santo Tomas Akinokoa

19.- **Zuntzezko ehundura** duten mineral-talde bat (kaltzio eta magnesio silikato hidratatuak) izen berarekin ezagutzen dira eta funtsezko gaia dugu zenbait industrian. **Erregaitza** denez, areto publikoetan, suhiltzaileen arropetan, etab. oso erabilia izan da. Alabaina, gai hori **minbiziaren** sortzaile da -urtean 2.000/3.000 hildako urtean Frantzia bakarrik- eta hura kendu eta **ordezkatu** beharra arazo dextente sortzen ari da. Zertaz ari gara? Zein da gai hori?

- A) PVC
- B) Amianto
- C) Anilina

20.- Gripea gaixotasun arintzat hartzen dugu, pare bat edo hiru egunez lanera ez hurbiltzeko aitzakia polita. Zenbait pertsonarentzat -adinekoak eta-, ordea, ez da horren arina gertatzen. Izan ere, zenbait aldiz gogor jo izan du gripeak, hala nola 1918-1919 urte bitartean, munduan zehar «gripe espainola» izenez ezagutu zenaren garaian. Frantzia, esaterako, zein izan zen haren ondorioz hildakoen kopurua?

- A) 100.000
- B) 200.000
- C) 400.000

SOLUZIOAK
46. ORRIALDEAN



HILOBI.- Sepultura.

HAUTESLE.- Haute(t)s(i)+le. Hautatzailea. Elector.

IZPI.- Rayo.

ERIZAIN.- Gaisozaina. Enfermero.

ERAIKI.- Jaso, altxatu. Levantar, construir.

BIDE DATOR.- Badirudi datorrela. Parece que viene.

GAIZKILE.- Gaiztagina. Malhechor.

ZUNTZEZKO EHUNDURA.- Tejido fibroso.

ERREGAITZ.- Erre+gaitz. Incombustible. Era berean: egosgaitz, barkagaitz, izukaitz...

MINBIZI.- Cáncer

ORDEZKATU.- Sustituir.

LIMOSNATXO BAT

Pello Mari Otaño



2 ¹ Mutil koxkor bat **itsu aurreko** zuela aldamenian, gizon **buru-soil**, bizar-zuri bat bi **makuluren** gañian, kale-**ertzian** ikusi nuen iñora ezin joanian; ta bera nor zan jakin naian inguratu nintzanian, limosnatxo bat eskatu zidan Jainkuaren izenian

³ Eta jarraitu zuen esanaz: -lengo gerrate denian, ni aurren xamar ibiltzen nintzan beti edo geienian; nekatu gabe aisa igoaz **aldapik** luzienian; etzan burura asko etortzen gu ala gabiltzanian, gero limosna eskatutzerik Jainkuaren izenian.

⁵ Iñoiz pentsatzen **nere artian** ni jartzen naizenian, gaur ere asko dirala joango lirakenak zuzenian, ez luke iñork sinistatuko zer pena ematen didan. Ai! orla nintzan ni ere **sendo** ta gazte nenguanian, gaur limosna bat eskatutzen det Jainkuaren izenian.

² Zerbait emanaz galdetu nion al zan modu onenian, jaiotzetikan al zeukan ala **gaitzak artua mendian**. Erantzun zidan: -ez semia, ez nik indarra nuenian, ez nuen uste iritxitzerik onetara azkenian, gaur limosna bat eskatutzen det Jainkuaren izenian.

⁴ Odola bero eta burua arrua daguean, edozein eran sartutzen da bat alako **itsumenian**; **atsekabe** ta negar samiñak badatoz ondorenian; nola erabat batek bizia utzitzen ez duenian, limosnatxo bat eskatu biar Jainkuaren izenian.

⁶ Ai! txorakeri asko egiten da **zentzurik** ez daniel; sinista zazu ur au pasia daukanaren izenian: obiago da, garai dan arte **alegintzia** lanian, negar egiñaz ibili gabe gero denbora joanian, limosnatxo bat bildu eziñik Jainkuaren izenian

(Boga-Boga liburutik hartua)

ITSU AURREKO.- Itsu-mutila. Lazarillo.
BURUSOIL.- Calvo.
MAKULU.- Muleta.
ERTZ.- Kantoia, izkina.
ALDAPA.- Aldatza, malda. Cuesta.
NERE ARTEAN.- Nire baitan

,nirekiko. Para mis adentros.
SENDO.- Indartsua, kementsua. Fuerte.
GAITZ.- Gaisotasuna, eritasuna. Enfermedad.
MENDEAN HARTU.- Menderatu. Dominar.
ITSUMEN.- Ceguedad.

ATSEKABE.- Nahigabea. Dolor.
ZENTZU.- Burua. Sentido común.
AHALEGINDU.- Saiatu. Esforzarse.

BAIONAKO PORTUA

3 Baionako portua noizkoa den ez dakigu. Dakiguna, Miarritzen dagoen Itsasoko erakustokian badela duela bi mila urteko 'barku' bat, **enbor** batetan **zilatua**, Afrikako piragoen antzekoa. Ontzi hori Aturri ibaiaren hondoan aurkitu zuten. Baina garai haietako artxiborik ez da Baionako portua zer-nolako zen jakiteko!

V. mendekoak dira Baionaren lehen harresiak, Erromatarrek eraikiak. Hiria hor egin baldin bazuten hain segur portuagatik zitekeen. Geroago Normandiarrek ere Baionako portutik sartuko dira Euskal Herrian.

Portua aipu duten paper zaharrenak ingeles denborakoak dira, 1152tik 1452 arte, bi mende eta erdiz Baiona ingeles izana baita. Alienor Akitaniakoak ekarri zion Baiona bere dotean Henri II Plantagenet Ingalaterrako erregeari. Errege hau lagundu zuten bere gerletan

Baionako itsasgizonek, bereziki Bizkaiko golkoan. Baina joaten ziren Manche itsasora eta iparralderago ere.


Komertzioa ere egiten zuten. Bordaleko ardoa, Baionako ontziek zuten Ingalaterrara eramaten eta Baionara itzultzen ziren hiriak behar zuen **gariarekin**, ogia oinarritzko janaria baitzen garai haietan.

Orduko portua ez zen oraingoaren antzekoa harri eta zementuzko **kai** handiekin. Ontziak askoz ere ttikiago ziren, haizearekin ibiltzekoak

eta ez motorrekin gaur egun bezala.

Baionako **karriken** izenek erakusten digute non zen lehenengoko portua. Merkatu ondoan dituzue Port de Bertaco, Port de Castets eta Port de Suzeye karrikak. Herriko Etxe ondoan, rue Port Neuf, hots, portu berria, besteak baino berantago egina, beraz.


Ohartuko zarete karrika horretan arkuak badirela, beste karrika batzuetan Errobi bazterrean bezala. Arku horien pean ura zen eta ez harria gaur



ENBOR.- Tronco.
ZILATU.- Ahuecar.
HARRESI.- Murrua. Muralla.

GARI.- Ogia. Trigo
KAI.- Nasa. Muelle.

KARRIKA.- Kalea.



egun bezala. Karrikak ura ziren, Italiako Venezian bezala. Barkuak arkupetik etortzen ziren. Goian baziren ate batzuk eta haietatik husten ziren hor zeuden **biltegi**etara.

Ehun bat **soto** baitira katedral inguruetan, beren harrizko bobedekin, batzuk erromanikoak, besteak gotikoak, horiek ere Portuaren trafikua eskatzen zituen biltegiak ziren.

Arkupe horietan sartzen ziren barkuak itsasotik etortzen ziren, baina baita Uztaritze edo Akize aldetik ere.

Barkuak egiteko olak baziren Aturri eta Errobi bazterretan. Hor daukaze oraino armadaren «Arsenal» famatuaren azken etxea. Frantziako Iraultza garaian, gure herrietako **zurginak** hartu eta behartu zituzten Baionan aritzeko ontzi egiten Frantziako itsas armadarentzat.

Ontziak gero eta handiago direnez, itsasotik gero eta hurbilago gelditu dira.

BOKALE BERRIA

Baionako portuaren historian izan da huts handi bat. 1452an Frantziak beretu zuen hiria. Ondorioz, Ingalaterrarekiko harremanak desagertu ziren, eta horrek problemak sortu zituen portuarentzat. Baina gertakari bat izan zen oraino zailagoa. Itsasoratzeko bidea moztu zioten urari **legarrek** eta ura Iparraldera joan zen, Vieux Boucau arte, hemendik 30 bat kilometrotan. Trafikua nekezago zen eta portua hiltzera zihoan eta urari lehenagoko bide bera irekitzea erabaki zuten.

Louis de Foix injinadoreak egin zuen lan hori zortzi urtez eta erregeak bere gain hartu zituen despendiorik handienak, Baionako portuak eta **kasernek** pisu handia baitzeukaten Frantzia zaintzeko orduko **etsai** handiaren kontra: Espainia.

1578an irekia izan zen oraino hor dagoen itsasoratzeko bide edo bokale berria. Geroztik, berriki arte, ontzi berezi batzuek

garbitu, dragatu behar zuten Aturriren **zola** kantuak aipatzen duen «Baionako barra» famatu hark ekartzen zuen legarretatik eta, azkenean, itsasoan barna doazen bi dike luzeak egin zituzten, legarrari bidea mozteko.

NAFARROAKO PORTUA

XVII eta XVIII. mendeetan Espainiarekin izanen ditu harremanak Baionako portuak. Ameriketatik ekarriko dituzte kakao eta beste gauza asko Espainian saltzeko. Espainiako ilea ere Baionatik salduko da. «Espainiako» erraten dutelarik, Hego Euskal Herrikoa erran behar genuke gehienik. Iruñearen portua izan zen Baiona 1023an Gillermo Santxo erregeak Nafarroari lotu zionetik. Hain zuzen portu baten beharra zuelako.

Zenbat **mando-lerro** ez ote da ibili Belate **lepoan gandi** Uztaritzera arte. Uztaritzen, Errobi ibaian ibiltzen ziren barkuak betetzen zituzten eta hauetatik gero Baionan itsas-ontzi handiagoak. Gauza bera

BILTEGI.- Bil(du)+tegi. Almacén. Era berean: liburutegi, behitegi, bihitegi...
SOTO.- Etxeazpia. Sótano, bodega.
ZURGIN.- Arotza, Carpintero.

BOKALE.- Desembocadura.
LEGAR.- Hartxintxarra, kazkarra. Grava, cascajo.
KASERNA.- Cuartel.
ETSAI.- Azeria, aurkaria. Enemigo.

ZOLA.- Hondoa. Fondo.
MANDO-LERRO.- Mando-taldea, mando-samalda. Recua de mulos.
LEPO.- Muinoa, mendiska. Colina.
GAINDI.- Zehar, barrena. A través de.

gertatzen zen Bastidarekin, Bastida ere Nafarroaren portu bat izateko sortu baitzuen Luis X erregeak 1312an Baionarako bidean, orduko barkuak joan zitezkeen punturik gorenean.

PORTU MODERNOA

Baionako portuak beste **hedadura** bat hartu du XIX. mende **ondarrean**, ontziak motorrez ibiltzen eta handiagoak direlako eta Bokaleko **labegaraiak** sortu zituztelako. Burdina Bizkaitik etortzen zen, ikatza aldiz Ingalaterratik eta trafikua honekin berehala goiti egin zuen portuak. Bestalde, Landesetako **oihanek** emandako zura Baionatik esportatzen zuten Ingalaterrako **meategietara**.

Geroztik trafikua beti goiti egin du. XIX. mende hasieran 100.000 tonako trafikua zelarik, 1913an lehen miliora heldu zen labegaraien **garapenarekin**. 1960ko hamarkadan pasatuko ditu 2 milioi tonak, 3,5 milioiekin izanen da gorenean 1989an eta geroztik 3 milioiez gora dago. Ikus daitekeen bezala, gaitzeko **jauzia** izan da 1960 ondoren, nahiz eta arte horretan labegaraiak itxi ziren.

Bi arrazoiengatik. Alde batetik, Lacq-en aurkitu zuten petrolioa

eta bereziki sufrea. Sufreak berak eman du 1,5 milioitako trafikua, gorenean egon denean. Sufrea **agortzen** ari da orain eta 600.000 tonatan mugatzen da gutxi gorabehera. Egunean bi tren beterik etortzen dira halere Lacq-etik eta itsasontzietan orduan 800 tona kargatzeko gisan tresnatuak dira.

Lacq-etik aterata, 200.000 tona petrolio gordin joaten da hor gainditako **birfindegietara**, beste 300.000ko bat etortzen birfindurik.

Artoa nagusitu zaio sufreaki. Milioi bat tona esportatzen dute urte normaletan, Landesetako departamendua baita, gurearekin, artorik gehiena egiten duena Frantzia guztian. Baina batzuetan **idortea** dela, beste batzuetan Espainiara berera doala kamionez, eta gorabehera handiak ditu artoak. Hala nola 1993an 1992an baino % 47 gutxiago atera da portutik.

500.000 tona **onkailu** sartzen da gutxi gorabehera, artoak onkailu asko eskatzen baitu. Labegaraiak itsi zirenean, onkailu egiteko hiru fabrika egin ziren, baina hiruak itsi egin dira bata bestearen ondotik, onkailuak kanpotik inportatzen dituztelako.

Aurten hasi dira Portugaldik etortzen Ford eta Volkswagen

berebilak European zabaltzeko: urtean 20.000ko bat sartuko dela kalkulatu dute.

Jendeketarako ontziez negoziatzen ari dira Brittany Ferries konpainiarekin Ingalaterratik astean ontzi bat etortzeko, milako bat lagun eta 500 berebilekin, Euskal Herrian, Akitanian eta Espainia iparraldean oporrak pasatzeko.

Kamioiak itsasoz Ingalaterrara eramatea ere aipatzen dute zenbaitek. Izugarriko gorakada du kamioien trafikua autobidean eta laister txikiegi izanen da. Ba ote dakizue egunean 3871 kamioi pasatu zela gure muga 1993an: antzinako urtean baino % 12 gehiago, baina 1994an baino % 15,5 gutiago: 4476 izan dira joan den urtean!

Berri inportanteena da Ucin **altzairutegia** eraikitzen hasiak direla. Osoki martxan jartzen denean, 1,2 milioi tonako trafikua ekarriko du, heldu baita 4 milioi tonako trafikua goiti izan beharko lukeela ondoko urteetan Baionako portuak.

Ikusiz, bestalde, Aturri bazterrean **eremu** handiak badiela lantegiak eraikitzeko, portuaren gainean berean, lurra eta argi-indarra hegoaldean baino askoz ere merkeago direla hemen, ez da harritzekoa beste enpresa batzuek ere Ucin bidea hartzea. Ez baitu berdina balio itsasontzitik fabrikara hustea zuzenean eta fabrikatik itsasontzira, bien artean kamioi edo tren beharrean egon gabe.

Baionako portuan pasatzen diren itsasontziak non dabilzan nahiko zenuteke jakin? Inportazioei dagokionez, % 52 Europarekin egiten da, % 16 Afrikarekin, % 15 Ekialde hurbilarekin. Esportazioak, aldiz, Europara doaz % 73an, % 24, aldiz, Afrikara. Ikus dezakezen bezala, gauza gutxi gelditzen da beste herrialdeentzat!

Xipri Arbelbide



HEDADURA.- Zabalera. Ampliación, extensión.
ONDAR.- Bukaera, amaiera. Fin.
LABEGARAI.- Alto horno.
OIHAN.- Basoa. Bosque.
MEATEGI.- Mina.
GARAPEN.- Gara(tu)+pen. Desarrollo.

JAUZI.- Salto.
AGORTU.- Ahitu. Agotar.
BIRFINDEGI.- Refinería.
ARTO.- Maíz.
IDORTE.- Lehortea, sikutea. Sequía.

ONKAILU.- Ongarria. Abono.
ALTZAIRUTEGI.- Altzairu+tegi. Acería.
EREMU.- Esparrua. Area, ámbito.

ZAINZTAILEARENAK

3 Psikologoaren aginduz ikastetxean bi astez huts egin ostean, gaurko klasera batera apunterik gabe etorri naiz, eta, erabaki berria dudanez, halaxe etorriko naiz kurtsoa amaitu bitartean ere. Liburu bat ekarri dut, baina ez klasean lagunduko didalako, denbora pasarako baizik.

Ikasgelara sartu naizenean, **ohi ez bezala**, isiltasuna **erabatekoa** zen. Buruak apal ikusi ditut, eta begiradak are apalago. Liburua irakaslearen mahai gainean pausatu eta **ertz** batean eseri naiz. Aurrena isil-isilik egon naiz, une hartarako bi aste luzetan pentsatua nuena **hausnartuz**; hurrena, banan-banan, ikasleei begirada **arakatzailea** zuzendu diet; eta azkena, **astiro**-astiro, mahaitik altxa eta, ikasgelan atzera-aurrera ibiltzeaz batera, **hitz egiteari ekin** diot:

- Hemendik aurrera -hasi naitzaie sendo bezain hotz-, ez duzue Historia-klaserik izango; hemendik aurrera bakoitzak bere testu-liburua atera eta klase-ordua ikasten emango du; hemendik aurrera nire klaseetan ezingo da hitzerditxorik ere egin, eta kontuz liburua ahantzi edota hitz egiten harrapatzen bazaituztet! Bestalde, niri ere ezingo didazue ezer galdetu eta ezingo zarete komunera joan; beraz, egin beharrekoak klasean sartu aurretik egin- Egon -jarraitu dut ikasleei begirada zorrotza luzatuz-, ni hemen egongo naiz, baina aurrerrantzean ez niregan irakaslerik ikusi, zaintzaile edo polizi zakur bat baizik. Azkenik -utzi diet airean, azken hitz hau mehatxuak egiteko erabili ohi den doinuaren erabiliz-, azkenik ekainean azterketa izango duzue, eta orduan ez dut **errukirik** izango...

Isiltasunak erabatekoa izaten jarraitzen du. Ni neu, neure buruarekin eta egoerarekin harriturik, atzera mahaira itzuli eta aulkian eseri naiz. Nire begirada ez da inorenarekin gurutzatu; denak liburutik begirik kendu gabe daude. Ni ere, ekarri dudana Bitoriano Gandiagaren *Denbora galdu alde* poesi liburua zabaldu eta irakurtzen hasi naiz: «Denbora gaitzen ikasi behar dudala esan dit psikiatrak. Zenbait **ardura** eta arazori **hor konpon** esaten ikasi behar dudala ere esan dit. Bestalde, *Deanxit* **pilulak** errezetatu dizkit gosala eta bazkalondoetarako. Afalondorako *Tranxilium 15*» Irakaskuntzak bai idazlea bai ni psikologoaren dibanetik pasarazi gaitu; hargatik **hautatu** dut liburu hau irakurtzeko, baina ez dut orrialdeetan aurrera egiteko gogo handirik.

Ezustean, liburutik begiak jaso eta, ikasleak ikusi gabe, irakaskuntzan gertatu izan zaizkidan zenbait pasadizo bistaratu zaizkit.

Oso ongi oroitzen naiz. Nire lehendabiziko esperientzia zen; BBBko lehen mailako ikasleekin



nengoela, halako batean denak **irriz karkailaka** hasi ziren. Halaxe behin, birritan eta hirutan. Azkenik, adi egon eta haiek barrez hasi bezain laister, korridorera ematen duen horma gaineko leiho zabalera begiratu nuen eta han, Supermanen gisara, mutil bat ikusi nuen, besoa luze, kaparena anorak batek egiten ziola, eta **ziztu bizian** hegan. Ez bat eta ez bi, korridorera irten eta han ikusi nuen superman zelako hura, besapetik eta hanketatik bi gaztek eusten ziotela, korrika. Eta, jakina, klase barrenetik azpiko biak ez ziren ikusten (hormak estaltzen baitzituen), eta **irudi zuen** Superman xelebre hark hegan egiten zuela...

Ostiral batean, kurtsoaren azken egunetan eta irakasle-gelan geundela, bi gizon batazuridun etorri

OHI EZ BEZALA.- A diferencia de lo acostumbrado.
ERABATEKO.- Osoa. Total.
ERTZ.- Izkina, kantoia. Esquina.
HAUSNARTU.- Gogoan irauli, gogoetatu. Rumiar.
ARAKATZAILA.- Araka(tu)+tzaile. Escudriñador. -TZAILE atzizkiak egilea adierazten du. Esate baterako: laguntzaile, itzultzaile, saltzaile...
ASTIRO.- Mantso, poliki, geldiro.
HITZ EGITEARI EKIN.- Hizketan hasi.
ERRUKI.- Kupida. Compasión.
ARDURA.- Kezka, buruhaustea. Preocupación.

HOR KONPON.- (Esamolde zaharra) Alla kuidaos. Ahí se las arreglen.
PILULA.- Pastilla.
HAUTATU.- Aukeratu, bereizi. Escoger.
EZUSTEAN.- Ustegabearen, oharkabearen. Inadvertidamente.
IRRI.- Barrea. Risa.
KARKAILAKA.- Algaraka. A carcajadas.
ZIZTU BIZIAN.- Abiada bizian. A toda velocidad.
IRUDI ZUEN.- Zirudien, ematen zuen. Parecía.
IGARRI.- Antzeman. Çalar, darse cuenta.



ziren, kaxuela handi banarekin. Irakaslerik zaharrenek berehalaxe **igarri** zioten: hura ikasleen **adarjotze** edo mendekua zen. Eta esan eta izan, gure izenean bi kaxuelka bakailao **enkargatu ez zituzten ba** nazkante malapartatu haiek! Batazuridun gizagaixoak han bertan buelta eman behar izan zuten, muturra luze, kaxuelak hustu gabe, eta are okerrago dena, **sosik** ere jaso gabe...

Kearena ere oso entzutetsua izan zen. Bigarren Mundu Gerraz klasea ematen ari naizela, halako batean non hasten den **berogailutik** sekulako ke-lainoa ateratzen. **Atezaina** estintorearekin etortzerako klase guztia ketan zen eta **kirats** arnasezina korridorean zabaltzen hasia. Badoa atezaina, klasea aparrez bete du eta azkenik **horra**

non aurkitzen duen kea eragiten zuen pitokeria: zilar-paperez estalitako ping-pong pilota bat...

Alabaina, bi astez klasetik kanpo egotera behartu nauen telefono-deiarena markaz kanpoko izan da. Horrekin gogoratzen naizen aldiro, amorratzen jarri eta begiradapean harrapatutako edonor jota akabatuko nuke. Azterketa-eguna zen; fotokopiak egiten ari nintzela, idazkaria inguratu eta zuzendariarenera lehenbailehen joateko esan zidan. **Artega**, zer ote zen, zer ez ote zen, haren atea kask-kask jo eta, **kopetilun**, honela hasi zitzaidan: «Hara, **arestian** telefonoz hots egin dute eta, zera, ama...», hitza hitzari nola lotu ez zekiela. Ni, negarra begietan, leihora hurbildu eta luzaroan egon nintzen ikusi gabe begira, nire onera etorri ezinik. Txarrena espero, malkoak **xukatu**, zuzendariarengana itzuli eta dei bat egin ote nezakeen galdegin nion: ez amarenean, ez harengandik gertu bizi zen izebarenean, inork ez zuen hartu jo eta jo ari zen aparailua. «Ez zaitez ardura hemengo gauzez. Moldatuko gara.», amaitu zuen zuzendariak.

Albisteak eragindako zorabioan, ni tximistaren pare irten nintzen, eta halaxe egin nituen Hiritik Larrañetarainoko 80 kilometroak, sekulako **habailan**, aurrena autobidez, hurrena errepidez eta azkena kale estu batean gora. Ama nola hil ote zen, **hileta** nola prestatu beharko ote nuen, **beldurrak airean** zeharkatu nuen amaren etxeko ataria. Igogailua hartu eta, gorakoan, amarekiko azken **oroitzapenez** bete zitzaidan gogoa. Kopeta ilun, bihotza ilunago, **adore**a hartu eta txirrina jo nuen. Bat ere hotsik ez. Atzera txirrina jo eta, luze gabe, atea zabaltu eta haren bestaldean nor ikusiko eta ama, Jesus, Maria eta Jose, ama! «Ene, zer egiten duzu hemen? Ez duzu klaserik, ala? Hau ustekabea, hau!» Eta ni ez hitz ez hitzondo geratu nintzen, ez zerurako ez lurrerako; amak berak lagundu behar izan zidan sofarraino joaten eta etzaten...

Hori guztia, dagoeneko erre egiten duen nere begirada ikasleei zuzendu bitartean oroitu dut, eta amorratuz beterik, ez naiz damutu azken erabakiak hartu izanaz: ez, hemendik aurrera ez diet txintik ere esaten utziko, ez diet mugitzen utziko, ezta, ezta... **Beherakoa** izaten ere ez. Hemendik aurrera polizi zakur baten antzera ibiliko natzaie. **Zorritzaku alae**nak! Azterketa ez egiteko deitu zuten, bai?, bada orain entzun dezatela nire erantzuna, nire zaunka-hotsa...

Azken bi aste amaigabeetan bezala, lasaitu ezinik, liburua irakurri ezinik, aulkitik altxa eta, leihora hurbildurik, psikologoak agindutako *tranxilium* pilula bat **irentsi** dut. Bat-batean, irakasle izan nahi nueneko garaia etorri zait gogora, baina ez, psikologoak iragana baztertzeko agindu dit, eta gauza positiboak pentsatzeko. Baina ez dakit bada...

Patxi Zubizarreta

ADARJOTZE.- Tomadura de pelo.
ENKARGATU EZ ZITUZTEN BA!- ¡Mira que encargar!
SOS.- Txanpona. Moneda.
BEROGAILU.- Bero(tu)+gailu. Berotzeko tresna. Calefacción. Era berean: igogailu, hozkailu, garbigailu...
ATEZAIN.- Ate+zain. Portero/a. Era berean: behizain, etxezain, kutzazain...
KIRATS.- Usain txarra, sunda. Hedor.
HORRA NON.- He aquí que.
ARTEGA.- Urduri. Nervioso.

KOPETILUN.- Bekozkoduna, muturbeltza. Cejijunto.
ARESTIAN.- Duela gutxi, lehenxeago. Hace poco.
XUKATU.- Lehortu, sikatu. Secar.
HABAILA.- Velocidad.
HILETA.- Funeral.
BELDURRAK AIREAN.- Zeharo izututa. Muerto de miedo.
OROITZAPEN.- Gomuta, oroipena. Recuerdo.
ADORE.- Indarra. Valor.
BEHERAKO.- Kakeria. Diarrea.
ZORRIZAKU ALAENA!- Saco de pulgas. (Irain-hitza)
IRENTSI.- Tragar.

HITZ GEZIDUNAK

	Arbuio	↓	Berriro adierazteko	↓	Kanpo	↓	Eragiketa	↓
	Atzerria		Aurkitu nahiz		Otarre antzeko		Kristau gutuna	
	→		↓		↓		↓	
	Daude	→				Stokes	→	
	*Izena					Jupiterreko satelitea		
	→			Bizk., lehor	→	↓		
				Larruazaleko ebakia				
Pilotatokia	↓	Multa	↓	Joan den urtekoak	→			
*Deitura		Baldintzetan		Musika tresna				
→		↓			Atsekabea adierazteko	→	Azpi	→
					Rastafari		Sukaldeko ontzi zapala	
Euskal ikur	→				↓		Tente	→
Errep., txori mota							Puntu interesgarria	↓
→		Emakumeei deitzeko	→	Mehea	→	↓		
		Ipuin bereziak		Temati, selatsu				
Eta	→	↓	Itxaropena galdu	→	↓		Egiptoko jainkoa	→
Tirogaia			Barazkia					Izatasuna duen edozer
→		↓	Juntagailua	→			Hiru aldiz adierazteko	↓
			... egon, erne egon				Era hartan	
Lehioen trebalekua	→		↓			Zu zara, hi...	→	↓
Tranpa						Alda		
→						Hiru erregeen 2. lanbidea	→	↓
						Galdetzailea		
Modu atzizkia	→		Atzera etorriak	→	↓			
... kea sortzen du			Okin erdian					
→		↓		Auto mota	→			Banakoa
				500				Mila
Nekea, unadura	→		↓			Munduratu gaituena	→	↓

LOGIKA-JOKOA

HALAKORIK!!!

		DEITURA			ARRAZOIA			EDARIA		
		Elizazu	Montero	Lakua	Krisi espiritualala	Etxeko arazoak	Bizio hutsa	Rona	Whiskya	Koñaka
IZENA	Eñaut							E		
	Aritz							B	E	E
	Iñaki							E		
EDARIA	Rona									
	Whiskya									
	Koñaka									
ARRAZOIA	Krisi espiritualala									
	Etxeko arazoak									
	Bizio hutsa									

JEROGLIFIKOA

zi zi
zia zia

Halakorik!!!

Hiru lagun, familia anekoak eta ondo heziak ordea, egun berean mozkortu dira. Lotsa gorria! Eta ez apur bat piztu edo hein bat zerrepeldu, ez, mozkor arrailak amaitu baitzuten gau malapartatu hura. Alabaina, gertaera guztiek beren izateko arrazioa edo zergatia dute. Ondoko datuak erabiliz, aurki ezazu nork zergatik edan duen eta zer edanez bildu duen zepelina.

1. Aritz, Kuban iragan zituen oporraldi haietatik, ronzaletzaren dugua.
2. Elizazu ez da batere ongi konpontzen bere emaztearekin.
3. Eñauten abizena ez da Montero.
4. Iñaki izena ez duen Lakua ez du inolako krisi espiritualik jasan, baina izugarria da benetan tipo horren whiskyrako isuria.

Argibideak

Eskeman agertzen den **B** (Bai) letra 1. saileko datu zuzenak gurutzatzen diren laukitxoan ezarria dago; orobat, **E** (Ez) letraren bidez 1. sailean ageri diren ezintasunak adierazten dira. Datuak arretaz irakurri ondoren, hutsuneak zeinu horiekin (**B**, **E**) bete beharko dituzu. Ondorio zuzenak lortu ahala, soluzio taulara pasa ditzakezu.

IZENA	DEITURA	ARRAZOIA	EDARIA

Nolako pilota atera du Retegik?

LETRA-ZOPA

Aurki itzazu irudi hauei dagozkien hitzak. Ondo gogoan hartu norabide guztietan aurki daitezkeela.



H	T	A	I	O	S	A	D	E
O	E	N	B	K	A	I	R	F
R	O	R	D	I	R	O	P	U
T	E	O	E	O	T	E	X	J
Z	H	K	E	N	K	E	T	A
O	G	I	I	A	S	A	L	A
L	E	P	O	K	O	U	L	M
D	N	A	B	A	R	A	G	O
E	R	L	E	S	I	X	T	E

324
- 131
193



HASIERA TXARRA, FILME TXARRA

3 Zinezale **amorratuek**, benetako «hooligans» zeluloidezkoek osatzen dute «Empire» izeneko aldizkari britaniarra. Sekulako abenturetan sartzen dira. Etengabe. Gogotik. Gogor. Azkenengoan («azkenaurrekoan» esan beharko genukeela ziur nago) zineman izan diren filme-hasierarik hoberenak aukeratu izan dituzte. Ea **bat zatozen** zoro marabiloso hauekin.

SED DE MAL


Planu-sekuentzia zer zen erakutsi zigun filmea honela hasten da: **mozketarik** ez duen 4 minutuko sekuentzia batean, Mexikoren eta Estatu Batuen arteko muga **gainditzen** dugu, lehergailuz beteriko kotxearen **zelatan**. Momentu horretan ez da ezer amaitzen. Ikerlari bati segika hasten gara, kalean behera goaz, mugara bueltatzen gara eta orduan, urrutian, kotxearen motorra lehertu egiten da. Orduan bai, orduantxe, moztan da sekuentzia lehendabiziko aldiz.

APOCALIPSIS NOW

Vietnam. **Oihanean**. Ez da ezer mugitzen. Ez da ezer entzuten. Zeruan, helikoptero-sorta bat, besterik ez. Urrutitik, The Doors taldearen «This is End» abestia aditzen dugu. Xuabe-xuabe. **Zaratarik** gabe, soinurik gabe, suak hartzen du pantaila. Napalm izeneko arma ikaragarriak mundua su-garretara bota du. Jim Morrisonen ahotsa honela mintzo zaigu: «Hori duzue amaiera, lagunok...»

TIBURON

Parrandan dabilta neska-mutilak hondartzan. Gaua da. Bi jolasean hasten dira. «Ezetx harrapatu» dio neskak mutikoari. Segika hasten zaio. Chrissie itsasoruntz doa. Mutilari zerbaitek traba egiten dio hondar gainean. Chrissie **olatuen** gainean da, dagoeneko. Gero... beno... zuk dakizuna eta inoiz ahaztuko ez duzuna...




Empire, Britainia Handian aurki dezakezun zinema aldizkaririk jatorrena, ganberroena, zinezalearena.

2001. UNA ODISEA DEL ESPACIO

Filme honen hastapena Zinemaren kondairan dago. Eskubide osoz. Merezimendu handiz. Soinu-bandan, Richard Straussen «Honela hitz egin zuen Zaratustrak»-en **oihartzuna**. Izenik ez duen antigoalean gaude. **Tximuak baino** ez dira ikusten. Boteprontoan **batek daki** nondik etorritako eta nork bidalitako objektu erretangular magiko bat agertzen da haien artean. Segituan, gure **arbaso iletsuek** armak erabiltzen ikasiko dute eta elkarri ekingo diote basati. Irabazleak garaituaren hezur bat botako du zerurantz. Tximua **gizaki bilakatu** da.

TERCIOPELO AZUL

Herri maitagarri batean gaudela dirudi. Arriskurik ez dugu inon, inondik, ikusten. Arrosak daude **lorategietan**, su-hiltzaileak lanera doaz, gizon bat belarra zaintzen ari da... Bat-batean, lurrera eroriko da. Kamerak



Hemen dauden filme hauek guztiek hasiera mundialak dituzte. Horrela ez balitz, ez lukete gure oroimenean iraungo.

AMORRATU.- Porrokatua, oso zalea. Empedernido.
BAT ETORRI.- Ados egon. Estar de acuerdo.
MOZKETA.- Moz(tu)+keta. Etena. Corte.
GAINDITU.- Garaitu. Superar.
ZELATAN.- Vigilando.
OIHAN.- Basoa. Selva, bosque.
ZARATA.- Zalaparta. Ruido.
OLATU.- Uhina. Ola.

OIHARTZUN.- Eco.
TXIMU.- Tximinoa. Mono.
BAINO.- Baizik, besterik.
BATEK DAKI.- Auskalo. Vaya usted a saber.
ARBASO.- Asaba. Antepasado.
ILETSU.- Ile+tsu. Tximatsua. Peludo.
-TSU atzizkiak oparotasuna edo ugaritasuna adierazten du.
Adibidez: harritsu, urtetsu, euritsu...

GIZAKI.- Ser humano.
BILAKATU.- Bihurtu. Convertir.
LORATEGI.- Jardín.



Batman-ek eta bera bezalako zeluloidezko heroiek hasiera onak behar dituzte pantailako erregeak izateko.

erorketan jarraitzen dio eta zientoka **txingurrik** nola hiltzen duten gure begien aurrean azaltzen da.

LA MASCARA DEL DEMONIO

Inkizioko zerbitzariak sorgintzat jo dute Barbara Steele, **enbor** bati lotu eta barrutik hiltzez beteriko maskara jartzen diote aurpegian. Odol-tanta bat ikusten dugu. **Oihu** ikaragarriak entzuten ditugu. Suak hartuko du gero zorigaitzokoaren gorputza, baina ederki dakigu guk **mendekuaren** bila etorriko dela hilen artefik.

CUATRO BODAS Y UN FUNERAL

«Kaka, kaka, kaka!!!!» dio behin eta berriro Hugh Grantek. Ezkontza batera joatekoa da eta, ohikoa denez eta zaionez, osterera ere, berandu altxatu da ohetik. Ostera berandu dabil.

EL JUEGO DE HOLLYWOOD

Aipaturiko «Sed de Mal»-en planu **berdingabeak** 4 minutu irauten dituela esan dugu. Robert

Altmanek marka hori hausteko promesa **egin bide zuen**. Honen «The Player»-reko planu-sekuentziak 8 minutu urrezko irauten du. Hollywoodeko estudio batean gaude. Izkina, txoko, bulego, eskailera, biltegi guztiak **miatuko** ditugu eta, jakina, etenaldirik, mozketarik ez da izango gure paseo bitartean.


EL LARGO ADIOS

Robert Altmanen filme-hasiere ez dute parerik. «The Long Goodbye» filme beltza, «kriminala» da izatez, jaiotzez, baina ez pentsa odolik ikusiko duzunik. Ez uste tirorik izango denik. Ez horixe. Lehendabiziko planu hauetan, soldatapeko ikerlariak janaria plantatuko dio bere katu maiteari eta honek **muzin egingo** dio haragi merke horri...

UNO DE LOS NUESTROS

Martin Scorsese ere ez da **makala** hasieretan. Mafiakideen inguruko lan zoragarri honetan, Ray Liotta, Robert De Niro eta Joe Pesci kotxe batean daude. Gauda da eta abiadura handian doaz.


Bat-batean zarata arraro bat entzun da atzeko aldean. Geratu dira, ireki dute maleta-lekua eta ustez hilda zegoen **arerioa** bizirik dagoela ohartzen dira. Segituan, tiroz eta labanaz **akabatzen** dute. «Offean», Henryk bere istorioari ekiten dio: «Betidanik, txikitatik gangsterra izan nahi nuen nik...».



David Lynchek badaki tertziopelo urdinez jantzitako istorioak hasten.

Hemen bukatzen da «Empire»-ko kide eta konplizeek eginiko zerrendaren laburpena. Hemen hasten da, has daiteke, zuk zerorrek amesturiko filme-hasiera ederren kontakizuna. Badakizu, hauxe da gidoigile eta zuzendari guztien araua: «Hasteko era egokirik ez baduzu... **jai duzu**, lagun. Zure filmea txarra izango da, ez baitago hastapen desastrosoa konpontzerik, edertzerik».

Begoña del Teso



Hugh Grant denok ezagutzen dugu. Zergatik? Egoki hasten zen filme batean aurkitu genuelako.

TXINGURRI.- Hormiga.
ENBOR.- Tronco.
OIHU.- Garraisia. Grito.
MENDEKU.- Apentza. Venganza.
BERDINGABE.- Paregabea. Sin par.

EGIN BIDE ZUEN.- Parece que hizo.
MIATU.- Arakatu. Escudriñar.
MUZIN EGIN.- Uko egin, arbuiaitu.
MAKAL.- Ahula, eskasa.

ARERIO.- Etsaia, aurkaria.
Enemigo.
AKABATU.- Hil. Matar.
JAI DUZU.- Ez duzu zer eginik. No tienes nada que hacer.

"ENERGIA KALTEGARRIA" BRAULIO BABOLIO


(ENZEFALOGRAMA LAUA DUEN MUTIKOA)



LAU.- Plano.
PUSKA LEHOR.- Ogitartekod.
Bocadillo
LUR JOTA EGON.- Adorerik gabe egon. Estar hecho polvo, desanimado.
EZBEHAR.- Zoritxarra. Desgracia.
BARETU.- Lasaitu. Calmar.



NAÑO.- Enano.
 KISKALI.- Abrasar.
 HAU DA EGUNA HAU! - ¡Vaya día!
 ALUA!.- ¡So cabrón!
 BABO.- Ergela. Tonto, idiota.



NIK LEHENGO LEPTIK BURUA.-
(Esamolde zaharra). Ni betikoa
naiz. Sigo siendo el mismo.
EREIN.- Sembrar.
TRISTURA DARION GIZON.-
Hombre que le mana tristeza.
MINDU.- Dolorido.



ONURAGARRI.- Probetxuzkoa, balioduna. Util.
TRABESKATU.- Zeharkatu. Atravesar.
MARRAZKI BIZIDUN.- Dibujo animado.
BIDEA EMAN.- Ceder el paso.

JEROGLIFIKOA

zi zi
zia zia

Nolako pilota atera du Retegik?

Bi zi - bi zia= **Bizi-bizia**

LOGIKA-JOKOA

IZENA	DEITURA	ARRAZOIA	EDARIA
Aritz	Montero	Krisi espiritualak	Rona
Iñaki	Elizazu	Etxeko arazoak	Koñaka
Eñaut	Lakua	Bizio hutsa	Whiskya




HITZ GEZIDUNAK

[illegible]

EZETZ ASMATU:

1.C / 2.C / 3.B / 4.B / 5.B / 6.A / 7.A / 8.A /
9.B / 10.A / 11.C / 12.A / 13.B / 14.A / 15.A /
16.B / 17.C / 18.B / 19.B / 20.C

LETRA-ZOPA



SOLUZIOAK: Hortz, ogi, herensuge, lepoko, erle, kanoi, kenketa, aterki, pintore, lapiko.

ARIES

Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra

Sutsuegia zara. **Oreka** bilatu behar duzu, ingurukoekin bakean **bizitzekotan**. Egun hauetan ez zaizu eztabaidarik komeni. Utzi kafea. Ez **erre**. Bakardadeak ez dizu kalterik egingo bolada batean.

TAURUS

Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra

Euskara, alemaniera, ingelesa eta italiera batera ikastea ez da erraza. Gauzak txandaka egin behar dira, **astiro**. **Kementsu** zaude, baina ez da betirako izango. Datorren hilean damutu egiten ahal zara.

GEMINI

Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era

Zakarregi jokatu duzu zeure **maitalearekin**. Kontuz. Aspertu egingo zaizu. Eta orduan alferrik izango dira nigarrak. Jateko, **marrubiak**. Edateko, freskagarriak. Entzuteko, tangoak. Irakurtzeko, amodiozko ipuinak.

CANCER

Ekainaren 22tik Uztailaren 22ra

Taldeko bati buruz gaizki esaka ibili zara, eta bera ohartu egin da. **Minduta dago**. Arazoa ez baduzu laister argitzen, gaiztotu egingo da. Eta bi dobermanen jabe da. Egin bakeak lehenbailehen. **Bazpare**.

LEO

Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra

Loteria, kiniela eta antzeko zozketa guztietan parte hartzeko une egokia da. Aberastu egingo zara. Baina **biharamunean** guztia galtzeko arriskua daukazu. **Argi ibili!** Zenbakirik aproposena, bederatzia.

VIRGO

Abuztuaren 24tik Irailaren 23ra

Tamalez, zure zenbakia 033 da. Istripuak, **ezbeharrak** eta edonolako kalteak gertatuko zaizkizu. Egin aseguru on bat berehala. Erosi buruko kaskoa. Botikina prest eduki. Errezatu. Lasai, pasako da.

LIBRA

Irailaren 24tik Urriaren 23ra

Zoriontasuna ate joka daukazu. Erne ibili, eta aukera guztiez baliatu. Izarrek opari egin nahi dizute, nonbait. Ez bada horrela gertatzen, inguruan gaferen bat daukazulako da. **Uxatu** zeure ondotik.

SCORPIO

Urriaren 24tik Azaroaren 22ra

Zure betiko ametsa bete egingo da: mixiolari joango zara Hego Ameriketara. Oso egun gutxi izango dituzu hemengo jendeaz despeditzeko. Gaur bertan hasi, beraz. Prestatu mailetak. Irakurtzeko, Biblia Saindua.

SAGITARIUS

Azaroaren 23tik Abenduaren 21era

Saldu zeure telebista hori, edo opari egin, edo leihotik behera bota. Bizitza **erro**-errotik aldatuko zaizu. **Astia** izango duzu lagunekin eta familiarekin egoteko, kirola egin, irakurri eta musika entzuteko. Aspaldiko partez.

CAPRICORN

Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra

Amodioarekin egingo duzu topo. Zoragarria izango da. Baina arazo txiki bat dago: izaki zoragarri hori zuberotarra da. Zoaz korrika ikastaro **trinkoren** batera, hasi zuberera ikasten. Ez zara damutuko. «**Izan untsa!**».

AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra

Saiatu apainago janzten. **Eskalea** ematen duzu. Dufxa egunero hartzea komeni zaizu. Jendea zuregana inguratzea nahi baduzu behintzat. Utzi hanburgesa zikin horiek eta hasi **barazkiak** jaten. Aldaketa-garaia.

PISCIS


Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra

Txoro-txoro ibili zara azken garai honetan. Ongi egin duzu. Jarrai bide horretatik. Baina begiratu **patrikari**. Aurrezki-kutxako zerrenda beltzean zaude. Txoro bai, baina merke. Bestela, **jai duzu**.

SUTSU.- Gartsua, suharra. Fogoso/a.
OREKA.- Equilibrio.
BIZITZEKOTAN.- Bizi nahi baduzu. De vivir.
ERRE.- Fumar.
MINDUTA EGON.- Estar dolido/a.
BAZPARE.- Badaezbada ere. Por si las moscas.
UXATU.- Aienatu. Espantar.
TRINKO.- Intensivo.

IZAN UNTSA!- Izan ongi!. ¡Que te vaya bien!
ASTIRO.- Mantso, poliki.
KEMENTSU.- Indartsua, sendoa. Fuerte.
BIHARAMUN.- Hurrengo eguna. Día siguiente.
ARGI IBILI!- Kontuz, erne, adi ibili!. ¡Anda con cuidado!
ESKALE.- Eskekoa. Mendigo.

BARAZKI.- Ortuaria. Verdura.
MAITALE.- Amorantea. Amante.
MARRUBI.- Mailukia. Fresa.
TAMALEZ.- Zoritxarrez, zorigaitzez. Desgraciadamente.
EZBEHAR.- Zorigaitza. Desgracia.
ERRO.- Sustria, zaina. Raíz.
ASTI.- Beta, denbora.
PATRIKA.- Poltsikoa, sakela. Bolsillo.
JAI DUZU.- Ez duzu zer eginik. No tienes nada que hacer.



HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO